



Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako gobernuak neurriak zorrotzu dituzte koronabirusari aurre egiteko. Batetik, kalean ezin da 23:00etatik 06:00ak arte ibili. Bestetik, debekatuta dago udalerri batetik bestera pasatzea, salbuespenak salbuespen. Kasu positiboak goraka doaz Durangaldean • **2-3**

Etxera, birusari aurre egiteko

Autoen gehigarria 2020



“Haurtzaroaren kulturari lotutako formakuntzak ematen hasiko gara Durangon”

Eñaut Aiartzaguena Bravo
Oinherriko kidea • **5**



Abadiñoko Udalak babesak agertu die sexu erasoak jasan zituzten hiru emakumeei

Abadiño • Sexu erasoengaitik kondenatutako abadiñarraren indultu eskaeraren aurrean, Abadiñoko Udalak “babes osoa eta baldintzarik bakoa” agertu die hiru biktimei. Bide batez, udalak dei egin die abadiñarrei “biktimen erreparazio eskubidearen alde” lan egiteko. Gainera, bere baliabide guztiak ipini ditu biktimen eskura. • **8**

Durangoko baheketan parte hartu duten 5.067 herritarretatik 69k positibo eman dute PCR proban

Kutsatu kopuruak gora egin du herririk gehienetan; Osasun Sailak Durangoko galbahetzearen emaitzak eman ditu



Durangoko herrigunean ateratako argazkia.

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Positibo kopuruak gora egin du EAE osoan, baita Durangaldean ere. Joan zen asteen Durango zona gorrian sartu zen, 100.000 biztanleko 500 positibo muga gaindituta. Aste honetan 1.000ren muga gainditu du. Abadiño ere zona gorrian dago. Zornotza astelehenean sartu zen eremu horretan. Elorrio, ostera, hainbat egunean zona gorrian egon eta gero, laranja pasatu zen egunean.

Asteko batezbesteko positiboan alderaketak ere argi erakusten du positibo gorazko joera. Irailaren 21etik 27rako asteen, Osasun Sailak 16,28 positibo detektatu zituen batezbeste egunean Durangaldean. Kopuru hori gorantz joan da hurrengo asteetan ere. Urriaren 12tik 18rako asteen, eguneko batezbesteko positibo kopurua 39,7 izan zen. Aste honetan, astelehenean 65 kutsatu atzeman zituzten eskualdean, eta 75 martitzenean.

Durangoko emaitzak

Ignacio Garitano Osasun Saileko Zaintza eta Kontrol Programaren koordinatzaileak Durangoko baheketaren emaitzen berri eman zuen eguaztenean. Parte-hartze tasa ontzat eman zuen "proba boluntarioa" dela kontuan hartuta. Proba egitera deituta zeuden 13tik 40 urtera arteko 11.000 durangarretatik 5.067 lagunek egin zuten PCR proba. Joan zen martitzenean hasi ziren probak egiten Landako Gunean,

eta domekara arte bertara joateko aukera izan zuten durangarrek. Emaitzari dagokionez, 69 lagunek positibo eman zuten. Positibitate tasa %1,36koa izan zen.

Ermuan eta Mallabian ere bai Ermuan ere baheketak egiten dabil-tza eta mallabitarrei bertara joateko dei egin diete. Herri horietan ere 13tik 40 urtera arteko herritarrek parte hartzeko aukera izango dute. Eguaztenean, Garitanok behin-behineko emaitzak eman zituen, PCR probak egiten jarraitzen baitute. Eguaztenerako, Ermuko baheketan 1.717 proba zituzten eginda, eta hamabi lagunek positibo eman zuten. Positibitate tasa %0,70ekoa izan zen.

Emaitzak alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzaren neurriek zailtza ugari sortu dituzte. Joan zen asteburuan zonalde gorrian zeuden herrietako ostalariek 21:00etan zarratu zuten atea. Asteburuan Pedro Sanchezek alarma egoera ezarri eta gero, Eusko Jaurlaritzak neurri berriak iragarri zituen astelehe-nean. Euskal Autonomia Erkidego-ko herri guztiak itxi zituzten eta 23:00etarako etxeratzeko agindua ezarri zuten. Pertsona taldeei dagokienez, muga ezarri dute espazio publiko eta pribatueta: gehienez, 6 pertsona egon daitezke. Ondoko herrietara arrazoi sozioekonomi-koengaitik baino ezingo da joan.

Zenbakiak

1

11.000

PCR probak egitera deituta egon den durangar kopurua.

13tik 40 urtera arteko herritarrek parte hartu ahal izan dute Durangoko baheketan.

2

5.067

Durangoko baheketan egin duten PCR kopurua

Osasun Sailak martitzenetik domekara egin zituen probak, Landako Gunean.

3

69

PCR positiboan kopurua Durangon.

Hauxe da Durangoko baheketan egin diren proba guztien emaitza nagusia. 69 lagunek positibo eman dute.

4

%1,36

Positibitate tasa

Durangoko baheketan parte hartu duten 5.067 lagunetatik 69k positibo eman dute. Beraz, ehuneko portzentajea aterata, %1,36k positibo eman du.

5

%46

Parte-hartze tasa

PCR probak egitera deituta-koen ia erdiek euren borondatez parte hartu dute probetan; 13tik 40 urtera arteko durangarren %46k, hain zuzen ere.

“Ostalaritza zigortzen dabil-tza, egoeraren erru guztia geurea balitz lez”

Ordutegi aldaketa dela eta, zona gorrietako ostalariak lana berrantolatzen dabil-tza

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Orain egun batzuk, 21:00etan zarratzeko agindua zuten. Orain, 23:00etarako izan behar dute dena jasota. Zona gorrietako ostalariek kritikatu dute behin eta berriro aldatu behar dutela lan egiteko modua. Gainera, ostalaritzan fokua larregi ipintzen dela diote. Nerea Maortua Nere jatetxeko arduradunak ANBOToren galderei erantzun die.

Ostalariek zelan bizi dituzue azken egunetako neurri aldaketak?

Ardura apur bategaz. Joan zen asteen eta aste honetan kontraesan asko izan ditugu. Joan zen barikuan esan ziguten 00:00etan zarratu genezakeela. Gero, zona gorrian geundenez, 21:00etan. Mundu guz-

tia arineketan ordutegia zein izan behar zen argitzen... Estuasun handia izan genuen. Bestalde, Durango zona gorrian zegoenean, neurri batzuk hartu genituen, 21:00etarako zarratu behar genuelako. Eta orain beste neurri batzuk pentsatu behar ditugu.

Zelan eragiten dizue ordutegi berriak?

Jangela lehenago itxi behar dugu. %50eko aforoagaz zabaldu dezakegu eta lehenago itxi behar dugu. Horixe da egoera.

Fokua ostalaritzan ipintzen dela uste duzue?

Bai. Katalunian ikusi da ostalaritza itxita dagoela eta positiboan kopurua gorantz doala. Pertsona batek esan zidan lez, kalean dagoen

jendea kontrolatzea errazagoa da. Etxeetan jaiak egiten badira, hori zaintzea zailagoa da.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Oso gaxa da galdera horri erantzutea. Neurri hauekin ikusiko dugu asteburueta zelan lan egiten dugun. Edozelan ere, ostalaritza zigortzen dabil-tza, egoeraren erru guztia geurea balitz lez. Eta, gainera, guardia lanak egiten gabiltza: "Maskara ipini, jesarri..."

Beste ostalariekin berba egiten duzue, zein sentsazio duzue?





Zer gertatuko da? Horixe galdetzen diogu geure buruari. Gabiltzan moduan, ezin ditugu langile guztiak mantendu. ERTera pasatu ala ez, ezjakintasun handia dugu sektore osoan.

Zer esaten dizute bezeroek?


Ordutegi aldaketekin ez da erraza. Jendea ez dago ohituta 19:30ean afaltzera. Bezeroa 20:45ean altxatu behar bada mahaitik, ezin diot 20:30ean eman afaria, ogitartekoa ahotik irtengo litzaioke eta. Konplikatu da. Neurri berriekin ordu bi gehiago ditugu, baina ikusiko dugu.



Nerea Maortua
Nere jatetxeko jabea
Durango | 1965



Positibo kopurua Durangaldean (PCR positiboak)



Asterik aste, Durangaldeko positibo kopuruak gora egin du irailetik hona. Kasuak bikoiztu egin dira

DURANGALDEA • JONEGUENETXEA

Astekako datuak alderatuz gero, irailaren amaieratik urriaren amaierara positibo kopuruak gora egin du Durangaldean. Irailaren 21etik 27ra bitartean, 114 positibo erregistratu ziren Durangaldean. Hurrengo asteetan, kopuruak gora egin zuen nabarmen. Oraingoz, urriaren 19tik 25era bitarteko astea izan da positiborik gehien izan duena, 300, hain zuzen ere.

Azken asteotan Osasun Sailak semaforo baten antzeko sistema darabil herrikako egoeraren berri emateko. Eredu horia, laranja eta gorria erabiltzen ditu. Irizpidea ezartzerako orduan, 5.000 biztanletik gorako herrietan azken 14 egunetako inzidentziak kontuan hartzen dituzte. Horren arabera, 100.000 biztanleko 499 kutsatu baino gehiago dituzten herriak ere du gorrian kokatzen dira. 300etik 499ra bitartekoak, ere du larangan. Hortik beherakoak, ere du horian.

1.000 izen-emateen langa gaindituta, Durangoko Euskaraldiak indarra hartzen jarraitu gura du

Durangoko Euskaraldiak orain urte biko izen-emate kopurua handitzeko erronka du. 3.500 inskripzioen muga pasatu gura du



Durangoko Euskaraldiaren egoitza Zumalakarregi kalean dago aurtan.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Euskaraldia indartsu dator, eta gehiago indartuko da datozen egunetan. Edizio hau zarratzerako, 1.000 baino gehiago ziren egitasmoan izena emanda

zeuden durangarrak. Baina kopuru hori erraz geratu liteke atzean. Izan ere, Durangoko Euskaraldiko kideek erronka potolo bati heldu diote: orain urte biko marka hobetu gura dute, guztira 3.500 inskripzioen muga igarota. Sasoi nahasia den arren eta haizea alde ez dutela jakin arren, erronka hori ipini diete durangarrei.

Aurtengo edizioan, Euskaraldi-ko izen-ematea Interneten bitartez

egitea sustatu gura dute antolatzaileek. www.euskaraldia.eus web orrialdera joanda egin daiteke inskripzioa. Dena dela, Euskaraldiko lokalean izena emateko aukera ere badago. 2018ko edizioan egin zen

lez, aurtan ere Euskaraldiko lokala zabaldu dute Durangon. Zumalakarregi kalean atondu dute bulego-txoa, sasoi batean 'Naranja' denda zegoen lekuan.

Lokalak herritarrei informazioa emateko gune moduan funtzionatu du batez ere, eta Euskaraldiko banderolak erosteko aukera egongo da. Euskaraldia hasi aurreko egunetan txapa banaketa masiboa egingo dute, aurreko edizioan egin zuten lez. Datozen hiru asteetan honako ordutegia izango du lokalak: marti-

Aurtengo edizioan, izen-ematea Interneten bitartez egitea sustatu gura dute antolatzaileek

tzenetan eta egunetan zabalduko dute, 18:00etatik 20:00etara. Zapa-tuetan, goizean zabalduko dute, 11:30etik 14:00etara. Euskaraldia hurreratu ahala, ordutegi zabala-goa ipiniko dutela aurreratu dute egitasmoaren bultzatzaileek.

Hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen ariketa sozial masiboa da Euskaraldia. Orain urte biko Belarriprest eta Ahobizi figurei Ari-gune izeneko espazioak batu zaizkie aurtan. Euskaraldia azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da.

Durangoko Udalak Gurutzi Arregi etnografoa adopziozko alaba izendatzeko prozedura hasi du

Durangoko hamar bat lagunek Arregi adopziozko alaba izendatzea eskatu diote udalari. Udalbatzak aho batez onartu du izendapen prozesua martxan ipintzeko erabakia

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak Gurutzi Arregi etnografoa adopziozko alaba izendatzeko prozedura hasi du asteon. Durangoko hamar bat lagunek, tartean Lepoldo Zugazak, eskatu dute Arregi adopziozko alaba izendatzea. Udalbatza osatzen duten zinegotzi guztiek aho batez erabaki dute izendatze prozesuari hasiera ematea. Baina behin betiko izendapena aurrerago egingo da, horre-

tarako ezinbestekoa delako osoko bilkura monografiko bat egitea. Ima Garrastatxu alkateak aurreratu zuenez, azaroaren 12an egingo dute osoko bilkura monografiko hori, Arregi egun hartan jaio zen eta, Lemoan.

Kulturaren ekintzailea

Gurutzi Arregi Azpeitia 1936an jaio zen, Lemoan. Baina txikitzen Durangora bizitzera etorri zen. Politika

eta Gizarte Zientzietan lizentziatu zen, Deustuko Unibertsitatean. Euskal Herriko Atlas Etnografikoan lan handia egin zuen, eta baita euskal kulturaren alde ere. Frankismo osteko lehenengo udalbatzan zinegotzia izan zen Durangon. Gerediagako idazkaria ere izan zen elkartearen lehenengo urteetan. Kurutziaga ikastolaren sorreran ere parte hartu zuen. Maiatzean hil zen, 84 urte gaz.



Gerediaga elkarte.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko urriaren 30a
18. urtea - 826. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Oinherri ez da umeentzako zerbait bakarrik; kolektiborik zaurgarrienak ipini gura ditugu erdigunean”

Oinherri egitasmoak herri hezitzaileak garatzeko lan egiten du. Durangaldean geroago eta presentzia handiagoa duen proiektua da eta Durangoko Udalak proiektuagaz bat egin du



Eñaut Aiartzaguena
Bravo
Oinherriko kidea
Iurretan | 1988

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Eñaut Aiartzaguena iurretan Oinherri egitasmoan sartuta dabil. Bizkaiko Herri hezitzaileen sareko dinamizatzailea da. Beragaz batu gara proiektuari buruzko xehetasun gehiago jakiteko.

Definizio batetik abiatzearen, zelan definitu dezakegu Oinherri?

Oinherri askotariko elkarteek osatutako elkarte handiago bat da. 14 eragile gaude barruan. Aisialdiari lotutako elkarteak, Irrien Lagunak eta heziketa arloko elkarteak daude. Horrez gainera, Oinherri Herri hezitzaileen sarea du. Umeen hezkuntza eta aisialdia beste era batera lantzen dituen proiektua da. Hezkuntza ez

formalean ipintzen du arreta. Egitasmoa Francesco Tonucci pedagogo italiarraren *Haurren hiri* liburuan esandakoan oinarritzen da. Tonucciren esanetan, hiriak ez daude pertsonen neurritan eginda, autoetara eta kontsumora bideratuta baino. Tonuccik horri buelta eman gura dio, umeengandik hasita.

Umeak diozu, baina Oinherri umeentzako proiektu batetik urrutirago doa. Batzuek uste dute hau umeentzako zerbait dela. Ez da horrela. Herri hezitzaileak ez dira umeentzako zerbait. Hau ez da ludoteka bat. Ez da gazteleku bat. Umeak aipatzen ditugunean, esan gura dugu gizarteko kolektiborik zaurgarrienak ipini gura ditugula erdigunean.

Umeak ipiniko ditugu erdigunean, baina baita emakumeak, adineko herritarrek, migratzaileak eta aniztasun funtzionala dutenak ere. Umeak, zelanbait esateko, horien guztien metafora bat dira. Txikiak direnak erdigunean ipintzea da

“**Haurtzaroaren kulturari lotutako formakuntzak emateari ekingo diogu Durangon**”

helburua. Azken finean, txikiak bizi ahal badu, handia ere biziko da. **Adibideak erabiltza, zelan ilustratu dezakegu Oinherriren proposamena?**

Hartu dezagun Durango, adibidez. Bere sasoian, unitate didaktiko batzuk egin zituzten ondare historikoa lantzeko. Eskoletan lantzen dute material hori. Bada, orain, materiala eskolan bakarrik landu barik, asmoa da dinamiken bitartez herriko elkarteekin, komertzioekin eta gurasoekin lantzea. Kanean lantzeko formulak bilatzea. Parkeen eraberritzeari buruz ere ipini ditzakegu adibideak. Iurretako Amilburuko parkean, txintxaunok kortxoak dute azpian. Hesi batez inguratuta daude. Noren ikuspegitik daude eraikita txintxaunok? Umeen ikuspegitik ala helduen ikuspegitik? Hara: parke horren inguruan jesarlekuak daude, gurasoek, jesarrita daudela, umeak handik kontrolatu ahal izateko. Txintxaunak hesiz inguratuta daude umeak ez daitezen gehiegi aldentu. Seguru egon daitezen, kortxoak dute. Badirudi larregi babesten ditugula umeak. Eta umei galdetuz gero, horren arabera landu beharko genuke parkea. Berdin hirigintzan edo herri baten urbanizazio antolamenduan. Umeekin landu beharko liratekeen proiektuak dira. Eta eskualdean baditugu adibideak. Kurutzia ikastolako parkea hor dago. Baita Mañariko plazako parketxoak ere.

Durangoko Udalak bat egin du Oinherri egitasmoagaz. Zer etorriko da hitzarmen horretatik?

Lehenengo eta behin, formakuntza ematea da dugun asmoa. Umeen filosofia eta haurtzaroaren kultura azalduko dizkiegu bertako eragileei. Durangon Hezkuntza Kontseilua eta aisialdi mahaia daude. Horietan emango dugu formakuntza. Bestetik, beste herri batzuetan egondako esperientziak gerturatu gura genituzke. Herriko eragileekin ere batu gura dugu. Demagun genero arloa landu gura dugula. Bada, Bilgune Feministagaz batuko ginateke. Euskararen balioak landu gura ditugula? Berbaro, EHE eta AEK ditugu, adibidez. Tokiko eragileekin lan egitea da asmoa.

Oinherri egitasmoak zazpi printzipiogaz definitzen du bere proiektu hezitzailea

1. HAURTZAROAREN KULTURA

Umeak etorkizuneko herritar lez kontsideratu beharrean, umeak gaur egungo biztanle aktiboak direla aldarrikatzen du.

2. BENETAKO PARTE-HARTZEA

Gizarteak ahuldutako bestelako sektoreak ikusaraztea (emakumeak, aniztasun funtzionala dutenak, adinduek, etorkinak).

3. AISIALDI HEZITZAILEA

Eskolatik kanpoko eremuak hezkuntzaren parte direla ulertzea.

4. EUSKALDUNA

Euskara balio bat da bere baitan. Balio hezitzaile bat. Txikiaren alde egitea denon alde egitea da.

5. ANITZA ETA PAREKIDEA

Gizartea anitza da, eta, horren bestez, aberatsa. Sektorerik ahulenak erdigunean ipintzea.

6. INGURUMENAREN ZAINDARI

Ingurune naturala eta kulturala ezagutzea, zaintzea eta lantzea. Ingurumen kalteez jabetzea. Euskal Herriko kultura aniztasunaz jabetzea.

7. KOMUNITATEARI LOTUA

Auzolanetik, komunitatetik tiraka, jendartea sendotzea.

Oinherri elkarteagaz bat egiteko bideak zabalik daude Elorrión eta Otxandion

Oraingoan, Durango da Oinherriaren lankidetzaren hitzarmena sinatu duen eskualdeko herri bakarra. Baina horrek ez du esan gura Durangaldeko beste udalerri batzuek haurtzaroaren kultura lantzeko bidean pausorik eman ez dutenik. Elorrioko eta Otxandionko eragileek badute hartu-eman Oinherri elkarteagaz. Otxandion, adibidez, herri hezitzaile izateko bidean abiatu da.

Arrike
Liburudenda



Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

saltsan
MAKALLAU
Saltsan



saltsan.com

Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTSAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako,
telefonoz edo whatsapp bidez gugaz
kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailanerezureondoan

C E R A M I C A S
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com



Javi Buces Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea, ezkeretik hasita hirugarrena, Zornotzako udal ordezkariekin batera.

Zornotzarrek jasandako errepresio mota guztiak dokumentatzeko testigantzak batzeari ekin diote

Aranzadik eta udalak ikerketa hasi dute gerra zibilean eta gerraostean Zornotzan izandako errepresioa dokumentatzeko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Gertatu zen hura gogoratzeko. Gertatu zen hura ez ahazteko. Zornotzako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartek elkarlana hasi dute herriko memoria historikoa dokumentatzeko. Espainiako gerra zibilean eta frankismoaren lehenengo urteetan Zornotzan egondako errepresio-gertakariak dokumentatu gura dituzte ikerlan batean. Udalak eta Aranzadik dei egin diete herritarrei sasoi hartako gertakari edo testigantzen baten berri izanez gero, Aranzadigaz hartu-emanetan ipintzeko. Askotariko informazioa partekatu liteke: norbere familiako kideren batek jasandako gertakariaren bat, daturen bat, argazkiren bat... Funtsean, isilpean geratutako

oroitzapenen bat. Guztiak balio du, errepresioak aurpegi asko izan zituen eta.

Javi Buces Aranzadiko Oroimen Historikoaren Saileko arduraduna da. Bere esanetan, errepresio mota batzuk artxiboetan geratu dira, eta horrek, neurri batean, ikusgarritasuna eman dio errepresio mota bati. "Baina gero badira beste errepresio mota batzuk inon idatzita geratu ez direnak. Emakumeek jasandakoa, esate baterako. Hori ez da artxiboetan agertzen", dio. Horregaitik ipini dute azpimarra errepresio mota guztiak biltzeko asmoan. "Zer gertatu zen herritarren bizitzetan? Zelan eragin zien errepresioak herritarrei? Artxiboetan ez da horrelako informaziorik ager-

tzen", dio Bucesek. Alde horretatik, giza eskubide guztien urraketak kontuan hartu gura dituzte. Hilketak, erbestea, tratu txarrak... Eta baita herritarren sufrimendua bere horretan ere.

Sasoi hartako datu edo oroitzapenen bat izanez gero, horiek jakinarazteko eskatu diete herritarrei

"Badira inon agertzen ez diren errepresio motak; emakumeek jasan zutena, esate baterako"

Herritarrei orain zabaldu diete deia, baina Aranzadik hainbat errepresaliatu ditu identifikatuta dagoeneko. "Ikerketa amaitu barik dago oraindino, eta dagoeneko 2.500 bat errepresaliatu ditugu identifikatuta. Horietako 2.000 inguru ez ziren zornotzarrek. Baina historiako une hartan Zornotzan zeuden, sasoi gorabeherak bertara ekarrita. Aldiz, beste 500 bat Zornotzakoak bertakoak ziren", dio Bucesek. "Kontuan hartu behar da gerrako frontea inguruotan zegoela. Gerrak Durango, Gernika, eta Zornotza, inguru horiek kolpatu zituen batez ere. Eta Zornotza ez zen zerbait isolatua. Ospitale militarra zegoen hemen, kartzela. Beste herri batzuetan 2.500 kasu identifikatzen

ditu ikerketak. Hemen, ikerketa amaitu barik, dagoeneko 2.500 errepresaliatu baino gehiago ditugu", azaldu du Bucesek.

Aranzadik antzera bateko proiektuak ditu Euskal Herriko beste hainbat herritan. Gipuzkoan, batez ere. "Gure lana egia bilatzea da. Erreparazioa eta justizia beste alor batzuetan egiten da. Baina alor horiek ezin dute ezer egin, aurretik egiazki ez badago", azpimarratu du.

Herritarrei deia

Hainbat bide ipini dituzte zornotzarren eskura testigantzak batzeko. 943466142 telefono zenbakira deitu edo memoria@aranzadi.eus helbidera idatzi daiteke. Bestalde, udalak bulego bat ipiniko du herritarren testigantzak hartzeko. Astean behin zabalduko dute bulegoa.

Andoni Agirrebeitia alkateak azaldu du proiektuak hiru urteko iraupena duela. "2019an hasi zen eta oraingoa bigarren fasea da", argitu du. Dena amaitutakoan, agintariek liburu bat argitaratzea dute buruan.

Garaiko Udalak Momoitioko ermitaren eremua zarratu du jokabide ardurabakoei aurre egiteko

"Erabiltzaile batzuen gizalegearen aurkako jarrera dela-eta" erabaki du eremua zarratzea. Azkenaldian, erabiltzaile batzuek gauez jaia egiteko erabili izan dituzte ermitako inguruok

GARAI • EKAITZ HERRERA

"Erabiltzaile batzuen gizalegearen aurkako jarrera dela-eta", Garaiko Udalak Momoitioko San Juan ermitaren eremua zarratzea behartuta ikusi du bere burua. Azken boladan, erabiltzaile batzuek gauez jaia egiteko erabili izan dituzte inguruok. Askaldegiak hainbat erabiltzaile "biltzeko eta jai pribatuak egiteko leku bilakatu dira", adierazi du udalak. Jai horietariko asko

goizaldeko ordu txikiak arte izaten direla eta bizilagunen atsedena larriki oztopatzen dutela nabarmendu du udalak.

"Osasun agintarien gomendioak betetzen ez dituzten erabiltzaile-

Garaiko Udalak laguntza eskatu dio Ertzaintzari eremua erabiltzen ez dela bermatzeko


leak dira horiek. Gainera, hondaikinak eta zaborrak botatzen dituzte ingurunean, nahiz eta udalak edukiontzi bat izan horretarako", adierazi du Garaiko Udalak.

Askaldegien eremua eta aparkalekua behin-behinean zarratu dituzte. Udalak Ertzaintzari laguntza eskatu dio ingurune hori itxiera-aldian erabili ez dadin, batez ere etxeratze-aginduak ezarritako ordutegiaren barruan.



Momoitioko San Juan ermitaren eremua.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

 **keinu**

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoportmetriazentroa.com

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

**Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO**
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Ginekologia**
PSE: 93/18

mam ginekologia
zentroa

 Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia
klinikak

Goizatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhua Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefonoa: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínicadental hortzklínika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO**
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6
48200 - DURANGO**
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Abadiñoko udalbatzak babesa adierazi die sexu erasoak jasan zituzten herriko hiru emakumeei

Sexu erasoengaitik hamahiru urte eta erdiko zigorra duen abadiñarraren indultu eskaerari erantzun gura izan dio Udalak



Abadiñoko udalbatza.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Sexu erasoengaitik kondenatutako abadiñarraren indultu eskaeraren aurrean, Abadiñoko Udalak "babes osoa eta baldintzarik bakoa" agertu die hiru biktimei. Era berean, uda-

lak dei egin die abadiñarrei "biktimen erreparazio eskubidearen alde" lan egiteko.

"Biktimek eskubidea dute euren duintasuna, ospea eta gainerako giza eskubideak berreskuratzeko,

sekula berriro horrelako erasorik ez jasateko, sufritu dituzten erasoen aitortza izateko eta hala erasotzaileak, nola, dagokien neurrian, erakundeek eta jendarteak gertakari horien erantzukizuna

onartzeko", adierazi du Abadiñoko Udalak.

2019an, Auzitegi Gorenak hamahiru urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri zion egun kartzelan den abadiñar honi, "etenik bako

sexu-indarkeriagaitik"; erasoen momentuan, hiru emakume horietako bi adin txikikoak ziren. Erasotzailearen indultu eskaeraren aurrean, Abadiñoko Udalak babesa agertu gura izan die biktimei. Indarkeria matxistaren aurka bere gaitzespena eta "kondenarik gogorrena" ere agertu ditu. Babesa eskaintzeaz gainera, udalaren baliabide guztiak biktimen eskura ipini dituzte. Egungo "krisialdi soziosanitarioan", indarkeria matxistaren aurkako lanean "inoiz

Udalak dei egin die abadiñarrei "biktimen erreparazioaren alde" lan egiteko

baino garrantzi handiagoa" duela ere nabarmendu dute.

Kasuaren aurrekariak

Bizkaiko Lurralde auzitegiak hamasei urteko kartzela zigorra ezarri zion Abadiñoko gizon honi, 2009az geroztik emakume bati eta honen adin txikiko alaba biei sexu erasoak egiteagaitik. Akusatuak errekurritu egin zuen, eta ondoren, Auzitegi Gorenak hamahiru urte eta erdiko espetxe zigorrera murriztu zuen kondena.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak ikerketa bati ekingo dio egungo zaintza sistemak elorriarren osasun emozionalean eta egoera sozioekonomikoan duen eragina aztertzeke asmoz. Ikerketak 8.000 euroko aurrekontua du eta emaitzak datorren urte hasierarako izatea aurreikusten dute. Ikerketa honegaz, beharrianak dektatu eta horiei irtenbidea emateko ideiak jaso gura dituzte, zaintza eredu propio bat sortu ahal izateko.

"Udal moduan, beharrezkoa iruditzen zaigu horrelako ikerketak bultzatzea; izan ere, gustatzen ez zaigun errealitatea aldatu gura badugu —guztiz bidegabekoa iruditzen zaiguna—, beharrezkoa da errealitate hori ezagutzea", azaldu zuen Maria Herrero alkateordeak joan zen asteko prentsaurrekoan. "Proiektu honegaz bizitza eta zaintza erdigunean ipintzen ditugu eta hori garrantzitsua da guretzat", esan zuen Alazne Mendizabal zinegotziak.

Ikerketaren metodologia

Ikerketa metodologia kuantitatibo eta kualitatiboak erabilia egingo da, ikuspegi feministagaz. Errotik elkarteko Gisela Bianchik azaldu zuenez, besteak beste galdetegiak, eztabaida saioak eta adituekin Internet bidezko saioak egingo dituzte diagnostikoa egiteko. Bianchiren

Elorrioko Udalak egungo zaintza eredu eta sistemari buruzko ikerketa egingo du

Udalak 8.000 euroko aurrekontua du ikerketa egiteko; emaitzak datorren urte hasierarako izango dituzte



Mendizabal, Bianchi eta Herrero.

berbetan, emaitzak "erabakigarriak" izango dira, honegaz "zuzenean" jakingo da eta zein alderdi sozial eta ekonomikorik duten eragina zaintza sisteman. "Hainbat txostenek diotenez, COVID-19aren

ondoriozko osasun krisiak markatutako egungo testuinguruan, lan banaketa eta lan kargen desoreka areagotu da eta eragin negatiboa izan du, emakumeengan batez ere", amaitu zuen.



Zaldibarko Euskal Herria kalea.

Zaldibarko jaiak bertan behera uzteko eskatu du EH Bilduk

Horrez gainera, herritarrei ospakizunik ez egiteko deia egitea eskatu dio alderdi independentistak udalari

ZALDIBAR • A.M.

"Ezikusiarena ez egiteko" eta San Andres jaiak bertan behera uzteko eskatu dio EH Bilduk Zaldibarko udal gobernu taldeari. "Koronabirusaren eragina kontuan hartuta, jaiak ez ospatzeko erabakia hartu beharko luke udalak; era berean, jaietako asteburuan ohikoak di-

ren kinto eta kuadrilla bazkari eta ospakizunak ez egiteko deia egin behar die herritarrei", azaldu dute ohar baten bitartez.

Bestalde, EH Bilduk beste eskaera bat ere egin du: 9.000 euro bideratzea Zaldibarko ostalaritza bultzatzeko. Horrela, taberna bakoitzak 750 euro jasoko lituzke.



Gremioen gida

anboto



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza



Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA
info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 **IURRETA**
946 202 768
Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 pabiloiak
ABADIÑO 944 071 791

Zurgintza



ATEPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Iturgintza



UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
Instalatzaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com



Errepidearen titulartasuna lortuta, Atxondoko Udalak biribilgunea egingo du Hirubideko bidegurutzean

Atxondoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetza hitzarmena sinatu dute. Horri eskerrak, N-634 errepideko tarte bat udalaren esku geratzen da eta honek biribilgunea egingo du bertan; Aldundiak 800.000 euro eman dizkio horretarako

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Cemosa paretik hasi eta Santa Katalina zubirainoko errepidearen, BI-632 errepidearen, titulartasuna eskuratu berri du Atxondoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiagaz sinatutako hitzarmen bati esker. Behin lankidetza hitzarmena sinatuta, Atxondoko Udalak Hirubideko bidegurutzean biribilgunea egiteari ekingo dio. "Puntu hori arriskutsua izan da hainbat harrakadatan herriko erdigunetik irten eta Abadiño eta Elorrio lotzen dituen bidean sartzeko", adierazi du Xabier Azkarate alkateak. Lanek



Hirubideko bidegurutzean biribilgunea egingo dute.

Cemosa paretik hasi eta Santa Katalina zubirainoko errepidea udalarena izango da

800.000 euroko aurrekontua dute eta Bizkaiko Foru Aldundiak eman-dako diruagaz egingo dituzte.

"Herria hipotekatu"

EH Bilduko zinegotziak ez ziren ados agertu errepidearen titulartasuna aldatzeagaz. "Ados gaude herriko sarrera eta irteerak hobetzeagaz, baina ez gaude ados titulartasuna aldatzeagaz. Gure ustez,

erabaki horrek herria hipotekatzea ekarri lezake", adierazi zuen Ane Intxausti EH Bilduren bozeramaileak joan zen asteko bilkuran. Intxaustiri Gorka Garate jeltzaleak erantzun zion: "Ez da lehenengo aldia Atxondon errepide baten titulartasun aldaketa bat egiten dena, aurretik ere egin izan da. Axpeko errepideagaz ere berdina egin zen.

Gainera, alternatiba eskasa geneukan", esan zuen EAJko kideak.

Zergak eta tasak izoztu

Bestalde, joan zen asteko plenoan 2021eko zergak eta tasak izoztea erabaki zuten. EAJk egindako proposamena aho batez onartu zuten.

Osoko bilkuraren ondoren jeltzaleek prentsa oharrez jakinarazi

zutenez, zergak eta tasak izoztearen arrazoi nagusia pandemiak eta krisi ekonomikoak eragindako ondorioak arintzea da. "Osasun krisia hasi zenetik egiten gabiltzan lez, atxondarrei laguntzen ahaleginduko gara, ahal dugun neurrian eta eskura ditugun baliabideekin", adierazi zuen Xabier Azkarate alkateak.



Axpe, Azkarraga, Larrañaga eta Ortuoste

Jon Azkarraga elorriarrak irabazi du Arrazolako pala txapelketa

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Arrazolako (Atxondo) pala txapelketak garaile berriak ditu. Lehenengo eta bigarren kategorietako finalak jokatu zituzten joan zen zapatuan.

Jon Azkarraga elorriarrak irabazi zuen lehenengo mailako kategoria, Egoitz Axpe atxondarri 25-20 irabazita. Partidu gogorra izan zen, haizeteak baldintzaturikoa. Bigarren kategoriatik finaleraino Gorka Larrañaga eta Oier Ortuoste atxondarriak lehiatu ziren. Larrañagak eskuratu zuen garaipena, 25-18. Hirugarren kategoriatik finala jokatu barik dago oraindik. Xabat Lizundia atxondarra eta Iker Carrasco elorriarra lehiatuko direla aurreratu dute antolatzaileek.

Gobernu taldeak zergak eta tasak bere horretan uztea proposatu du lurretan

EAJk arrazoitu duenez, "krisi ekonomikoaren ondorioak arintzen lagundu" gura dute



Diru bilketak behera egin du eta egoera horri egokitutako aurrekontua lotuko du EAJk

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Datorren urtera begirako zergak eta tasak bere horretan mantentzea proposatu du Iurretako Gobernu Taldeak udaleko Ogasun Batzordean. "Pandemiaren ondorioz bizi den egoera kontuan hartuta" erabaki dute horrela egitea, EAJk ohar batean jakinarazi duenez. "Gaur egungo krisi ekonomikoaren ondorioak arintzen lagundu gura dugu", gaineratu dute.

Iñaki Totorikaguena alkateak argitu duenez, "diru bilketak behera egin du eta egoerari egokitutako aurrekontua lotu beharko dugu 2021erako, baina jaitziera hori ez diegu herritarrei bizkarreratuko". Diotenez, pandemia hasi zenetik hartutako neurriei eta datozen hiletan bideratuko diren laguntzei gehituko zaie hartutako erabakia.

'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa martxan Berrizen

Berrizko Udalak liburutegian ipini du martxan kanpaina hau eta abenduaren 9ra arte iraungo du

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Euskaltzaleen Topaguneak, Euskal Herriko hainbat herri eta liburutegigaz elkarlanean, *Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoa ipini du martxan.

Berrizko Udalak ere parte hartu duen euskarazko irakurzaletasunaren sustapena eta liburutegi publikoen ikusgarritasuna dituzten helburu nagusi egitasmoak. Aurtengoan, gainera, irakurzaletasunaren irakurketatik ateratu duen bizipenari erreparatu gura dio egitasmoak.

Publiko guztiari zuzenduta dagoen kanpaina da eta egitasmoan parte hartu gura duen orok aukera du irakurri duen liburua inguruko bati oparitzeko eta hari mezu pertsonal bat idazteko, egitasmoa antolatzaileek adierazi dutenez.

Ondorengo hauek dira parte hartzeko bideak: lehenengo pausoa, irakurri. Liburutegira joan eta euskarazko liburu bat maileguan hartuta. Bigarren pausoa, gozatu. Liburua irakurri eta bueltatu ondoren, liburutegian

Irakurzaletasuna sustatzea eta liburutegi publikoen ikusgarritasuna dituzten helburu egitasmoak

fitxa bat bete beharko da eta liburuzainari eman. Azkenik, oparitu. Betetako fitxa hori zozketa batean sartuko da eta zozketako irabazleek liburuak jasoko dituzte etxean.

Mallabiko Udalak lokal baten esleipena abiatu du, negozio bat zabaldu gura duten ekintzaileei bideratuta

Helburua da udalerrian zerbitzu enpresa bat lehenengoz martxan ipintzeko proiektua duten pertsonei laguntzea eta horretarako azpiegitura bat eskaintzea; proposamenak aurkezteko epea azaroaren 25ean amaituko da

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO
Mallabiko Udalak lehiaketa abiatu du Ekipamendurako Eraikina deiturikoan dagoen lokal bat alokatzeko. Helburua da udalerrian zerbitzu enpresa bat lehenengoz martxan ipintzeko proiektua duten pertsonei laguntzea eta horretarako azpiegitura bat eskaintzea.

Baldintza orrian zehazten dira zer zerbitzu mota eskaini daitezkeen bertan. Nagusiki, udalerriak ez dituen zerbitzuetara eta herriari onura eskainiko dioten negozioira bideratu gura dute: elikagaien salmentara eta, orokorrean, etxeko gaien salmentara bideratutako merkataritza; papertegi negozioak (prentsa salmenta, liburua, kopiadenda, eskolako material-denda...), eta osasun zientziak (fisioterapia, podologia, elikadura...).

Ekintzaileei bideratutako lokala osasun zentroaren ondoan dago eta 34 metro karratu inguru ditu. Lokalak elektrizitate hartunea eta ur hornidura ditu, eta baita komun

irigarri bat ere, 50 litroko edukiera duen termokoa.

Azaroaren 25era arte
Dagoeneko hasita dago proposamenak aurkezteko epea, eta azaroaren

25era arte iraungo du. Lokala alokairuan hartu ahal izateko baldintzak jasotzen dituen dokumentua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean edo udaleko webgunean eskuratu daiteke. Lokala errentan hartzeko ematen

den eskubideak bost urteko epea izango du kontratua esleitzen denetik zenbatzen hasita. Esleipendunak eskatuz gero, Mallabiko Udalak luzatu egin dezake ondasuna ustiari ahal izateko kontratua.



Lokala Osasun Zentroa dagoen eraikinean dago, ate nagusiaren eskumako aldean.



Alex Txikonen ikus-entzunezkoa bertan behera utzi dute Izurtzan

IZURTZA • J.D.
Azaroaren 7an, Alex Txikon alpinista 2016an Nanga Parbat-era (Himalaia) egindako igoera laburbiltzen duen ikus-entzunezkoa eskaini behar zuen Izurtzako erabilera anitzeko eraikinean. Baina udalak ekimena bertan behera uztea erabaki du, pandemiaren bigarren olatuaren eraginez azken egunetan hartu diren neurriak direla-eta. Horrela jakinarazi dute udal arduradunek.

Dokumentalagaz batera, alpinista lemoarrak *Mendi biluziak* liburua aurkeztu behar zuen. Liburuan zein dokumentalean, Himalaiako zortzimilakora igoztean bizitako abenturak kontatzen ditu.

Otxandioko zurezko zubietan sareta berriak, laban ez egiteko

Aurretik zeuden sareta baino zurrunagoak izango dira

OTXANDIO • J.D.
Otxandion, herrigunearen inguruan zein handik kanpora, zurezko hainbat zubi daude eta sareta ipini dute behean, zoruan labankadarik ez egiteko. Zazpizortzi zubitan, lehengo sarea apurtzen zebilen, babesa zahartzen zebilen eta labankadak gertatu izan dira, udal ardura-dunen esanetan. Hori dela-eta,

Otxandioko Udalak sareta aldatzea erabaki du. Sareta berriak aurrekoak baino sendagoak eta zurrunagoak izango dira, erorikoak prebenitzeko. Zubi batzuetan aldatu dituzte dagoeneko, sareta zaharrak kendu eta berriak ipini dituzte. Falta diren zubietan hurrengo egunetan zehar egingo dituzte horretarako lanak, udaleko iturrien arabera.



Zurezko zubi bat Otxandion, behean babeserako sareta duena.



Otxandioko kirol ikastaro denak bertan behera uztea erabaki dute

OTXANDIO • J.D.
Mainondo Kirol Elkarteak askotariko ikastaroak (txirrribike, zumba, yoga, mindfulness...) antolatu zituen azarorako eta abendurako eta izen-ematea abiatu zuten. Baina, osasun krisia dela-eta, azken egunetan hartutako erabakiak medio, ikastaroak ez antolatzea erabaki dute. "Pena handiz baina Eusko Jaurlaritzak argitaratutako dekretuaren ondorioz, ezinezkoa egiten zaigu kirol eskaintza aurrera eramatea", adierazi dute sare sozialen bidez. Elkar zaintzeko mezua zabaldu dute eta iragarri dute hurrengo urtean berriro ikastaroak antolatzen saiatuko direla.



Hamahiru emakume dantzari atxilotuen biografien aurrean, dantza saioa amaitu ostean.

Emakume atxilotuen istorioa argitara, Mañarian

Joan zen zapatuan, 'Atearen ostean, Mañariko 13 alabak' izeneko dokumentala estreinatu zuten pilotalekuan, memoria eta errekonozimendua uztartu zituen ekitaldian

MAÑARIA • J.D.
Dokumentalak frankismoan atxilotu eta kartzelaratutako hamahiru emakume mañariarren istorioa kontatzen du eta udalak, Gerediaga Elkarteak eta Bideografik ekoiztetxeak egindako lanaren emaitza da. Mañariko frontoiko aurkezpena Xabier Madariaga kazetariak gidatu zuen

eta ekitaldiak hainbat osagai izan zituen. Esate baterako, hamahiru emakume dantzarik dantzan egin zuten dokumentaleko protagonisten biografiak jasotzen zituzten panel informatiboen aurrean eta Antton musikari elorriarrak hainbat kanta eskaini zituen. Segurtasun neurriak zaindaz gauzatu zuten ekimena.



Plateruena. 2004.

Hareek denporak!

Plateruenaren 16. urteurrena: antzokiaren inflexio puntua

Hiltegi zaharreko eraikinean obrak egin eta gero, Durangoko Plateruenak 2004ko urriaren 28an zabaldu zituen ateak. Aurtengoa urteurren berezia izan da, eta kultur proiektu herritarrak norabide berria hartuko du datorren urtetik aurrera. Antzokiaren itxierak erreakzio kate luzea sortu du. Urteotan euskararen eta euskal kulturaren arnagune izandako espazioak aurrerantz ere

helburu horri eustea da gehien eskaera.

Oraindino ekitaldiak programatzen dabiltzan arren, eraikina Durangoko Udalaren esku geratuko da urte amaieran. Udal arduradunek aurreratu dutenez, hausnarketa prozesu bat hasiko dute herritarrekin eta eragileekin. Inoiz baino gehiago, ez diamante ez perla ez urre gorririk, alegrantzia baino ez dago hoberik. J.G.

Politikan

Mikel
Uriguena
SQ-2D



M14

Azkenean, hainbeste oztopo eta zailtasunen ondoren, eguna jarri diogu trenaren lurren gaineko herri galdeketa. Historikoa izango da 2021eko martxoaren 14a. Zaila zirudien, ia ezinezkoa, honaino ekarri gaituen prozesuari hasiera eman zitzaionean. Bilerak, aurkezpenak, komisioak, sinadura bilketak, buruhaustea, prentsa oharrak, kartelak, manifestazioa... hori eta askoz gehiago. Ezina ekinez egina. Eta heldu da egun handia. Zuk, durangar guztion modura, erabakia hartu ahal izango duzu zeure moduko herritar talde batek egindako lanari esker.

Hori bai, zer da erabaki beharko duzuna? Proiektuen arteko hautaketa izango da? Ez, ba. Galdeketa bi aukera eskainiko dizkizu. Indarrean dagoen proiektua bertan behera uztea ala berau babestea. BAI ala EZ erabaki ahal izango duzu. Bai aukeratuz gero, oraingo proiektua historiara pasatuko litzateke eta herritar guztion artean bideragarria den beste bat sortzea izango da hurrengo pausoa. Ezezkaren alde eginez gero, ezer ez litzateke aldatuko eta gauzek bere hortan jarraituko lukete.

Norberak hartu beharreko erabakia da. Ondo pentsatzeko modukoa, Durangoren etorkizuna zeharo baldintzatuko duen proiektua baita. Edozelan ere, oso garrantzitsua da parte-hartzea, Landakora joan eta botoa ematea. Behin izango hauteskondeez haratago bozkatzeko aukera, erabili beharko dugu ba. Egin dezagun handiago berez handia izango den eguna.

Durungaldea asteen

Biharko protestara joan ezin direnez, pentsiodunak herrietan mobilizatuko dira

Durungaldea | Indarrean dagoen alarma egoerak herririk herri joateko aukera murrizten duenez, Durungaldeko pentsiodunak ezingo dira joan Bilbon biharko antolatuta dagoen protestara. Hori dela eta, eskualdeko herrietan mobilizatuko dira, astelehenean. Durangon, Berrizen, Zaldibarren eta Elorrion mobilizatuko dira. Iurretan eta Zornotzan, ez.

Asier Aginako preso ohia hil zen joan zen astean, gaixotasun baten ondorioz

Durango | Asier Aginako durangarrak 2019ko urtarrilean irten zuen kartzelatik. Audientzia Nazionalak bere zigorra etetea erabaki zuen, defentsak osasun arazoengaitik eskaria egin eta gero. Aginako 2004an espetxeratu zuten. Frantzia egon zen hasieran. Gero, Espainian dispersatuta.

Itziar Alberdi preso durangarra Madrildik Logroñoko kartzelara gerturatuko dute

Durango | Espetxe Institutuzioen Idazkaritza Nagusiko iturriek ANBOTOrri baieztatu diotenez, Itziar Alberdi euskal preso durangarra Madrilgo Estremera kartzelatik Logroñora (Errioxa) gerturatuko dute. Alberdi durangarra 2014an atxilotu zuten, Mexikon, 22 urte ihes eginda egon eta gero. Beste euskal preso batzuk ere gerturatuko dituztela jakinarazi du Espetxe zuzendaritzak. Joseba Borde, Aitor Esnaola, Karmelo Lauzirika, Juan Jesús Narváez, Ibai Aienza, Mikel Aienza eta José Juan García dira preso horiek.

'Jantzari' dokumentalak genero ekitatearen saria jaso du Cine Invisible film jaialdian

Joan zen astean jaso zuten saria Bilboko Azkuna Zentroan

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Jendaurrean aurkeztu hasi besterik ez, eta dagoeneko sari bat jaso du *Jantzari* dokumentalak. Filmak genero ekitatearen saria jaso du Cine Invisible jaialdiaren barruan. Gai sozialak lantzen dituzten filmen jaialdia da Cine Invisible, Kultura Communication Desarrollo Gobernu Kanpoko Erakundeak urtero antolatzen duena.

Aurtengo edizioa joan zen astean egin zuten, Bilbon, eta bertan proiektatu zuten filmeetariko bat izan zen *Jantzari*. Jone Guenetxea ANBOTOk eta dokumentalaren zuzendariak, eta Carlos Iglesias

Bideografik ekoiztetxeko kide eta dokumentalaren zuzendariak jaso zuten saria. "Oso gai edo ohitura lokal batetik abiatuta, gai unibertsal bat jorratu gura izan dugu. Matxismoak defendatzen du tradizioa ezin daitekeela inolaz ere aldatu, eta hemen ikusten dugu, Iurretako dantzarien kasuan, hainbat urtean gizonak dantzatutako dantzak parekideak izan daitezkeela. Hori jende askori eskerrak etorri da", esan zuen Guenetxeak.

Guenetxeak "tradizioan parekidetasuna bultzatzen dabiltzan pertsona guztiei" eskaini zien saria.



Carlos Iglesias, Jone Guenetxea eta Unai Esturo. Cine Invisible.

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA GABA BALTZA PRESTATZEN

Interesgunea, erakusketa, Haurrentzako ipuin kontalaria...



hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Jaso
liburuak
zure etxean!



Eskaerak WhatsApp-ez eskatu 686 214 964, Bizum-ez ordaindu





HIPER EROSKI ABADIÑO
Murueta auzoa, z/g
Abadiño



Aurreztu **%4**

EROSKIⁱⁿ erosten duzun guztian

Umeak txarrei berriz DOAN hila bere bidez

EROSKI club

Patinete elektrikoa, tantaka bada ere, geroago eta gehiago ikusten den garraiobidea

Oraingoz ez du hiri handietako fenomenoaren hedadurarik inguruotan, baina jendea interesatuago dago apurka



Patinete elektrikodun gidari bat, lurretako kaleetan.

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Hiri handiek urte batzuk daramatxate patinete elektrikoen erabilerrak izan duen hazkundeari egokitzen. Ingurumen ikuspegitik, konbustio bidezko ibilgailuei ipini dizkieten murriztapenek mota honetako garraiobidearen ugartzea ekarri dute. Herri txikiagoek oraindino zeharka begiratzen diote fenomeno horri, baina apurka-apurka eta tantaka bada ere, geroago eta patinete elektriko gehiago ikusten da inguruotan. Bizikleta-dendetan, esaterako, lehenengo pertsona bizi dute jendeak duen interesa eta, azaldu dutenez, geroago eta gehiago sartzen dira dendara patinetengaitik galdezka.

Lurretako Undarribike Bike&Snow dendan ez dute patinete elek-

trikorik saltzen, baina konpondu egiten dituzte. "Eskaria dago, gorakada bat ikusi dugu eta patineteak ere kopontzen hasia erabaki dugu", azaldu du dendako Aitor Undagoitiak.

Bere bezeroek lanera joateko edo aisialdirako erabiltzen dute patinetea, baina banaketa zerbitzuentzat ere garraiobide erabilgarria dela konturatu da, inoiz denda kanpoan ikusi duenagaitik. "Ikusi izan dut banaketa enpresa bateko furgoneta hemendik gertu gertatzen, eta banatzailea lurretan banatu beharreko paketeak patinete elektrikoan banatzen. Alternatiba aproposa da mota horretako langileentzat", adierazi du.

Durangoko Bizibike dendan ez dute patinete elektrikorik, baina

baten batek interesa badu, bitartekari lana egiten dute, denda espezializatueta eskatuta. Denda horietan, 500etik 1.000 eurora bitartean erosi daitezke. Kontua da Interneteko gune batzuetan merkeago ere eskuratu daitezkeela, baina kalitatea sakrifikatuta. "Jendeak pentsatu behar luke 150 euroko batek ez duela 700 euro balio duenaren besteko bermerik ematen", adierazi dute Bizibike dendako arduradunek. Sarriago hondatzen dira eta, gainera, ez dira konpontzeko batere errazak. "Nori eskatu piezak? Nora jo? Denda serioetan erositakoak badira, telefonoz deitu eta eurek laguntzen digute arazoa identifikatzen, baina, bestela, oso gaxa da", diote. Adinari dagokionez, jendeak pentsatu dezakeen

baino adin tarte zabalagora hedatzen da interesa. Undarribike dendako Undagoitiak 20tik 45 urtera artean kalkulatu du bere bezeroen adin tarte eta Durangoko Bizibike 40 urtetik gorakoak ere joan izan dira.

Araudia

Hiri handietako buruhausterik ez dago oraingoz herri txikietan. Bizikidetzera eramangarria da. Beraz, Duragon, esaterako, ez dago garraiobide mota horren gainera ordenantzarik, eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako irizpideak aplikatzen dira.

Patinete elektrikoak Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailu moduan hartzen dira. Mota horretako ibilgailuen gainera behin betiko

araudia onartu bitartean, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak irizpide argigarri batzuk argitaratu zituen iazko abenduan, gidariei eurei, udalei zein trafiko arloko poliziei laguntzeko. Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuek honako ezaugarriak dituzte: gorpil bakarra edo gehiago izan dezakete, baina plaza bakarra dute; motor elektrikoekin bakarrik bultzatu daitezke eta gehienez 25 kilometro orduko abiadura hartu dezakete. Ezin daitezke espaloietan edo oinezkoen guneetan ibili.

Zer jokabide zigortu daitezkeen ere zehazten da irizpideetan: mugikorra eskuan dela gidatzea, soinu-erreproduzitzailerak lotuta dauden kaskoak edo aurikularrak ipinita gidatzea edo gauez argirik barik edo elementu islatzailerik barik gidatzea, besteak beste.

Aseguruak

Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuek, eta, beraz, patinete elektrikoek ez dute aseguru behar, baina geroago eta erabiltzaile gehiago dagoenez, aseguru etxeek beren beregi eurei bideratutako aseguruak eskaintzen dituzte. "Batez ere erantzukizun zibila barneratzen duten aseguruak dira. Norabide biak kubritzen ditu, bai gidariak norbait jo badu, edo bai bera jo badute. Gehigarri moduan, bestelako istripuetarako kobertura bat sartu daiteke, baina erantzukizun zibilarena da printzipalena", azaldu du Seguros Bilbao aseguru-etxeko Javi Ruedak.

Mota horretako aseguru bat baino gehiago egin dute Durangaldean, baina patinete elektrikoaren fenomeno oraindino "ez da lehertu" eskualdean. "Oraingoz ez dira asko ikusten eta ez da lehentasunezko lan lerro bat gure aseguru etxean", gaineratu du. Bestelakoa da egoera hiri handietan: "Orain urte bi Bartzelonan egon nintzen eta hangoa beste kontu bat da. Asko ikusten dira eta bide propioak dituzte. Aseguruak beharrezkoagoak dira, hor kasuistika asko daudelako. Adibide bat: bizikletan istripu bat badut eta erruduna neu banaiz, seguruenik etxeko aseguruan sartuta egongo da erantzukizun zibila. Baina patinete elektrikoena seguruenik ez da sartuta egongo", dio Ruedak.



Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxe: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com





Gorka Mujika, Joseba Arregi eta Tomas Maguregi Iurreta LH Institutuko zuzendaria.

“2040an auto elektrikoak konbustiokoak baino gehiago egongo direla diote”

Auto elektrikoak eta hibridoak geroago eta gehiago ikusten dira errepidean. Hala ere, oraindino salbuespena dira

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Gorka Mujika (Eibar, 1972) eta Joseba Arregi (Berriatua, 1967) Iurreta Lanbide Heziketa Institutuko irakasleak dira. Auto elektrikoen gaia geroago eta gehiago lantzen dute ikasleekin. Etorkizuneko teknologia elektrifikaziora bidean doan arren,

oraindino ere parke mobil gehiena konbustiokoa da. Trantsizio momentua bizi dugu.

Errepidean geroago eta auto elektriko gehiago ikusten da, baina zein puntutan gaude?

Gorka Mujika: Elektrifikazioa errea-

litate bat da. Hor hibridazioa eta elektriko purua bereiztuko genituzke. Hibridazioa merkatuan dago gaur egun eta fabrikatzaileek gehienek modelo guztiak hibridatuta dituzte salgai. Horrek ematen du tiroi handia izango duela hamar urtera. Elektrikoan hastapenetan

gaude oraindino. Eskaintza ez da oso handia, eta plazaratzea txikia da, urterik urte saltzen den por-

“**Hazten dabilen merkatua da, baina merkatuan askoz ere konbustioko motor gehiago dago oraindino.**”

tzentajea handitzen dabilen arren. Joseba Arregi: Hazten dabilen merkatua da, baina merkatuan askoz ere konbustioko motor gehiago dago oraindino. Ematen du urte gutxian elektriko asko salduko dela. 2040an elektrikoak konbustiokoak baino gehiago egongo direla diote. Autonomia aldetik, zelakoak dira auto elektrikoak?

Joseba Arregi: Indar eta erantzun

aldetik, gasolinadun autoekin alderatuta berdinak dira. Autonomia beste kontu bat da. Bateriak asko ari dira eboluzionatzen, baina jo dezagun 200 kilometroko autonomia izan dezakeela. Gasolinadun batek 600 kilometroko autonomia izan dezake, eta gasoildun batek 1.000koa. Bigarren auto legez errazago ikusten dut. Kontuan izan behar da etxean edo lanean erre-

“**Elektrifikazioa errealitate bat da. Hor hibridazioa eta elektriko purua bereiztuko genituzke**”

“**Ez du kutsatzen. Garbiak da. Erabiltzaileentzat mantenua ere abantaila da**”

karga puntua dagoen.

Gorka Mujika: 200 kilometroko autonomia erreferentzia legez hartu daiteke. Jenderik gehienak egunean 200 kilometro baino gutxiago egiten ditu. Beraz, erabiltzaile arrunt batek ez du autonomia handiagorik behar. Ez da egun berean bidaia luze bat egiteko, baina lanera joateko erabili daiteke.

Joseba Arregi: Prezioa izan daiteke arazoa. Auto elektriko txiki bat 28.000 euro inguruan dago. Gasolinan, kotxe hori 17.000 euroan dago. Prezioa bikoiztu egin daiteke.

Eta abantailak?

Gorka Mujika: Ez du kutsatzen. Garbiak da. Erabiltzaileentzat mantenua ere abantaila da.

Joseba Arregi: Erroberak, frenoak... mantenua erraza da.

Gorka Mujika: DGTak ematen duen etiketa izanda, emisiorik bako ibilgailu legez abantaila asko ditu. Hirietara sartu ahal izateko baimena, abantaila fiskalak, aparkalekuak doan, taxien bidetik ibili daitezke, kargatzeko aukera merkataritza-guneetan...



AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com

www.amayaautoreparaciones.com

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

MOTOS TABIRA

KONTZESIONARIO OFIZIALA
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA
ITZULI DA KEEWAY
125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxe: 94 681 40 68
motostabira@outlook.es
www.motostabira.es

Arzuria ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO



Talleres Serafín
S.Coop

Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807

“Elkartearen helburua gizartea heztea da, istripu asko saihestu daitezkeela jakinaraztea”

Rosa Trinidad durangarrak Bideko Indarkeriari Stop elkarte sortu berri du; elkartearen helburuetariko bat biktimen beharrianak jaso eta horiek erantzukizunak dituztenei helaraztea da

DURANGO • J.D. /M.Z.

Rosa Trinidad Stop Accidentes (Istripuak Stop) taldeko kidea izan da orain arte. Baina durangarrak elkarte berri bat sortu du orain: Bideko Indarkeriari Stop. Elkartearen helburu nagusia biktimak erdigune izatea da.

Zerk bultzatu zaituzte beste plata-forma bat sortzera?

Euskadin modu autonomoan jokatu dugu beti eta ikusi dugu gai garela gure kabuz aurrera egiteko. Gainera, modu honetan aritzeak askatasun gehiago emango digula us-te dugulako hartu dugu erabakia.

Zeintzuk dira elkarte berri honen helburuak?

Helburu asko ditugu, baina elkartearen helburu nagusienetarikoa gizartea heztea da, gizarteari jakinaraztea istripu asko saihestu egin daitezkeela. Horrez gainera, biktimen beharrianak jaso eta horiek erantzukizunak dituztenei helaraztea ere bada gure helburua; hau da, gizartearen eta erakundeen bitartekari izatea.

Zergaitik izen hori, Bideko Indarkeriari Stop?

Beti esan izan dut istripu baten kontra ezin dugula borroka egin, ez

dakigulako noiz edo non gertatuko den. Zoritzarrez, hemendik aurrera ere gertatuko dira istripuak, baina bideko indarkeriari amaiera eman dakioke, hori saihestu daiteke. Abiadura handian gidatzea ekidin daiteke eta alkohola edo drogak kontsumitu eta gero gidatzea saihestu behar da. Baita gidatzen gauden bitartean mugikorrari begiratzea ere. Horren guztiaren kontra borrokatu gaitezke, eta borroka egin behar dugu. Bideko indarkeriaren kontra 0 hildako eskatu behar ditugu. Nik sinisten dut horrela izan behar dela eta lortu daitezkeela. Baina argi dut jendea kontzientziatzea beharrezkoa dela horretarako. Argi izan behar dugu gidatzea erantzukizun handiko ekintza dela; orduan, gidatzeari ehuneko ehun eskaini ezin badiotzu, ba, ez gidatu.

Pertsonalki denbora asko daramat izen hau ipintzeko borrokan. Errealistak izan behar dugu, eta ezinezkoa da gure errepideetan istripurik edo hildakorik ez egotea. Baina kausa honengaitik borroka egitea guztiz errealista da. Erraz esaten da pertsona bat istripuan hil dela. Baina betirako galdu den bizi bat da. Familia bat betirako hondatuta

geratuko da. Eta zergaitik? Pertsona batek horrela gidatzea erabaki zuelako. Eta hori ezin daiteke onartu. Beraz, jendea kontzientziatu gura dugu, eta behin hori eginda, pertsona batek arauak bete gura ez baditu, zigortu egin beharko dugu.

“Zoritzarrez, istripuak gertatuko dira, baina bideko indarkeriari amaiera eman dakioke”

Momentu honetan ez da zigortzen?

Ez, momentu honetan zigorrak oso arinak dira, eta, gainera, justizia oso motel doa. Askotan uste dut epaile batzuk ez direla familien lekuan ipintzen. Momentu honetan, norbait hiltzeak oso merke irteten du. Gure ustez, zigorrak handitzea ezinbestekoa da. Hala ere, araua hautsi duena gizarteratu egin daitezkeela ere sinesten dugu; zigortu egin behar dira, baina horregaz soilik ez da ezer lortzen.



Rosa Trinidad Coronado
Bideko Indarkeriari Stop
Durango (1957)

Orain arte zuen oinarririk garrantzitsuenetarikoa bat kontzientziatzea izan da. Hemendik aurrera ere horretan arituko zarete?

Heziketa da guztiaren oinarria. Urteak daramatzagu Durangon bide hezkuntzako ikastaroak ematen, eta datorren kurtisorako ere gure elkarte berriari eman diote ardura

hori. Guretzat umeak heztea oso polita da, etorkizunean inbertitzen gabilta, eta oso esperientzia ona izan dugu: jolastuz ikasten dute, eta ez dute ahazten ikasitakoa. Gazteen artean gutxieneko kontzientzia badagoela nabaritzen da, beste belaunaldi batzuetako gazteena baino handiagoa.

ARRIBIDE
.. GASOLINDEGIA ..

Arriaundi Industrialdea P1 - 48215 IURRETA Bizkaia
Tel. 946 818 381 - estacionservicio@arribide.com

www.arribide.com

Garage SAN MIGUEL

TallerXXI

**ESPEZIALISTAK DIESEL
ETA GASOLINA MOTOREAK
KONPONTZEN**

Dantzari auzunea, 8
IURRETA
Tel.: 946 811 479
garagesanmiguel@gmail.com
www.garajesanmiguel.es



EN IURRETA

Santa Maña Auzoa, 19
48215 IURRETA



KONDIA

www.kondia.com

KONTZESIONARIO OFIZIALA



PEUGEOT

ETORMOBIL

www.etormobil.com

KONTZESIONARIO OFIZIALA



**DESGUACES
PILASTRA**

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketak
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

☎ **Administrazioa, bajak eta faxa:** 946 218 079


☎ **Osagarrien salmenta:** 946 201 787

e-mail: desguacespilastra@gmail.com

📍 Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)

BURUARI KLICK!





SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak
lauki zurietan.



BIKOTEAK

Kalabaza hauek bere bikotekidea daukate.
Gai zara denak topatzeko?





DIFERENTZIAK

Topatu itzazu hamar diferentziak.




LABIRINTOA



ASMAKIZUNA

Arma badu ere ez da hiltzaile;
sarea badu ere
ez da arrantzale.
Ze ote da?

- 1.- Armiarma
- 2.- Iñurria
- 3.- Sagua





Ostalaritza

gida



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrean kokatuta. Pintxo gozoak eta giro alaia.

**Durango**



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak. Egunero zabalik.





‘Codice’ DANTZA BERRIZ :: Urriak 31

Dantza, komunikazioaren eboluzioaz ohartarazteko

Gaur egungo gizartean komunikazioaren eboluzioan zehar egindako bidaia batzen du ‘Codice’ dantza ikuskizunak. Circle of Trust eta Logela Multimedia konpainiek sortutako kultur proposamenak hedabideen

garapenaren ondorio positibo eta negatiboez ohartarazteko balioko digu. Gaur egungo komunikazioaz hausnartzera gonbidatuko du ikuslea. Berrizko Kultur Etxean izango da, urriaren 31n, 20:00etan.

Urriaren 30ean

DURANGO antzerkia
Haurrentzako antzerkia:
‘Alpha’ (Ganso&Cia)
18:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO musika
Kontzertua: MiCE,
21:00etan, Plateruena kafe antzokian.

ELORRIO antzerkia
‘Fadoak entzuten zituen gizona’ antzezlan
(Xake Produzioak)
20:30ean, Arriola antzokian.

IURRETA zinema
Beldurrezko zinea,
Etxego gaztelekuan.
Barikuro dago zabalik
Etxego, 17:00etatik
20:30era.

ZORNOTZA antzerkia
‘Otsoa’ (Proyecto Larrua)
20:15ean, Zornotza Aretoan.

Urriaren 31n

DURANGO tailerra
Umeentzako tailerra:
Halloween moztarokak
11:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO antzerkia
Haurrentzako antzerkia:
‘Alpha’ (Ganso&Cia)
18:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO erakusketa
‘San Fausto gogoan’ argazki instalazio ibiltaria,
Andra Mariko elizpean. Zezenak Dira oroitzapenezko bideoa ere ikusgai ipini dute Durangoko Udaleko sare sozialetan.

DURANGO erakustaldia
‘Freestyle bike show’ kirol erakustaldia,
19:00etan, San Jose Maristak ikastetxean.

DURANGO musika
Durango Orfeoien kontzertua,
20:00etan, Andra Mariko basilikan.
J. Haydn-en ‘Nelson’ meza eskainiko dute kamera orkestragaz eta bakarlariekin.

IURRETA magia
‘Gezur gehiegi’ ikuskizuna (Txoborro magoa),
19:00etan, Askondoko karpan. ‘Iurreta kulturaz bultzatuz 2020’ egitarauaren barruan. Aldez aurretik sarrera hartu behar da kultur etxean.

ZORNOTZA musika
Zornotzako Musika Banda: Zinemaren doinuak,
19:00etan, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 1ean

DURANGO musika
Kontzertua: Gehi Zazpi,
12:00etan, Aurora Abasolo Parkean. Euria eginez gero, Kurutzia Ikastolan izango da emanaldia.

DURANGO antzerkia
Haur antzerkia: Alpha (Ganso&Cia),
18:00etan, San Agustin kulturgunean.

Azaroaren 5ean

ZORNOTZA musika
Kontzertua: Bizkay Bay Jazz Collective,
20:15ean, Zelaieta zentroan. Musika Gertu ekimenaren eskutik.

Azaroaren 6an

BERRIZ antzerkia
‘Cottondarrak’ txotxongilo ikuskizuna (Anita Maravillas),
18:15ean, Berrizko Kultur Etxean.



Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Koko dragoi txikia**
barikua 30: 18:15
domeka 1: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **EMMA**
barikua 30: 18:00/20:30
zapateria 31: 18:00/20:30
domeka 1: 17:30/19:30
astelehena 2: 18:30
martitzena 3: 19:30
eguzatena 4: 19:00

• **Las brujas de Roald Dahl**
barikua 30: 19:00/21:00
zapateria 31: 18:45/19:00/21:00
domeka 1: 17:00/20:00
astelehena 2: 18:30
martitzena 3: 20:00
eguzatena 4: 19:00

• **Jóvenes y brujas**
barikua 30: 19:00/21:00
zapateria 31: 16:45/19:00/21:00
domeka 1: 17:30/20:00
astelehena 2: 18:30
martitzena 3: 20:00
eguzatena 4: 19:00

• **Trolls 2: gira mundial**
zapateria 31: 16:00
domeka 1: 12:15

:: Elorrio ARRIOLA

• **Falling**
zapateria 31: 20:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00

• **Lur eta Amets**
domeka 1: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Eso que tú me das**
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:15

• **Mina y el mundo de los sueños**
domeka 1: 17:00

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

Anbotoren lagun izan gura duzu?



Orain duzu aukera! Zelan? BFA-ren Aurrera Kultura bonuaren abantailagaz!

Anbotoren
lagun
30€

Anbotoren lagun
**Bizkaia aurrera
kultura** bonuaren
launtzagaz
15€

1

Eskuratu Bizkaia
AurreraKultura bonua
BBK-ko kutxazainean edo
[https://kutxabank-bakb.jan
to.es/eu/comprar](https://kutxabank-bakb.jan
to.es/eu/comprar)
webgunean
15€-an



2

Etorri kultura bonuagaz
Anbotoko bulegora
(Bixente Kapanaga 9
behea, Iurreta) eta egin
zaitez **Anbotoren lagun**

3

Atera etekina Anbotoren
lagun txartelari!
Gozatu abantaila eta
deskontuez



+



* Erosteke azken eguna 2021.05.24/
Erabiltzeko azken eguna 2021.05.31. Bonu
honek urtebeteko iraupena izango du

Bidali mezua: anboto@anboto.org
Deitu: 94 681 65 58
www.anboto.org



“Prostituzioa ez zen inola ere gai txikitzat hartu agintari kolonialen eguneroko agendan”

Liburu-dendetan salgai dago Begoña Etxenagusia Bellaterragaz argitaratu duen liburua



Begoña Etxenagusia
Atutxa

Iurreta | 1969

ENTSEGUA • ARITZ MALDONADO

Begoña Etxenagusia iurretarrak 1912tik 1956ra bitartean Marokoko protekturatuan izandako prostituzioa aztertu du liburu batean.

Nondik dator gaiarekiko interesa?

2010. urtean, nire ohiko lanean bederatzi hilabeteko eszedentzia hartu eta Tarragonako Rovira i Virgili (URV) Unibertsitatera joan nintzen. Asteburuetan, aste bitarteko kazetaritza ikasketez gainera, Nazioarteko Lankidetzako unibertsitate espezialista graduondokoa egitea erabaki nuen. Sasoi hartan, udaberri arabiarrek lez bataiatu zen fenomeno pil-pilean zegoen eta Tunisiaren inguruko lan bat egitea erabaki nuen kurtso hau burutzeko. Egia esan, egonda nengoen herrialde honetan urte batzuk lehenago, lagun batek, oporretan, eta autoan zeharkatu genuen zati handi bat. Ikerketa txiki hori aurrera eramateko, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) txosten bat irakurri nuen, eta bertan aro kolonialean prostituzioa Abdallah-Guèche auzunean kontzentratu zela adierazten zen; baita gaia ez dagoela oso ikertuta ere. Horrek gaiarekiko interesa piztu zidan. Geroago, tesia egitea erabaki nuenean, nire tesi zuzendariaren, Eloy Martín Corrales, aholkuei jarraitu nien eta Marokora begira ipini nintzen, iturri primarioak erabili behar izanak bultzatuta, Tunisia eta Egipto alde batera utzita.

Zergaitik uste duzu dela hain ezezaguna prostituzioa Espainiako protektoratuaren kasuan?

Joseba Sarrionandiak *Moroak gara behelaino artean?* saiakeran Miguel de Unamunoren bertso bati erreferentzia egiten dion moduan, izenburuak ezkutatu egiten du, zelanbait, gure ikerketaren xedearen presentzia. Zergaitik? Sasoi

hartan, agintari kolonialek prostituzioa erregulatzeko erabakia hartu zuten, argi eta garbi. Alde batetik, euren nagusitasun moralak tokiko agintarien eta herritarren aurrean indartzeko, baina baita ere oso garrantzitsua zen erlijio eta klase anitzeko izaera zuen gizarte batean sortutako oztopo ikusezinei eusteko.

Kontuan izan behar dugu Marokoko espainiar protektoratuaren (berez, eragin eremu) ikertu bako gaia izan dela hau, eta Afrika kontinenteko gainerako hispaniar eremu kolonialetan ere gauza bera gertatu dela; hau da, Saharan, Ifnin eta Ginean. Sarritan galdetzen diot neure buruari gaur egun ere ea putz egiteko prest gauden laino lodi hori urruntzeko.

Anbito edo prostituzio mota bi aipatzen dituzu. Zeintzuk dira desberdintasunak?

Bai, hobeto esanda, prostituzio-eremu bi gainjarri ziren aldi berean: Espainiatik etorritako emakumeena, kintoen soldadu eta kolonoei zuzendutakoa (baina ez bakarrik hauei); eta marokoarrena, batez ere soldadu profesionalei eta marokoarrei zuzendutakoa. Kontuan izan behar dugu herrialde honetan kolonizatzaileek ezarritako mugak porotsuak zirela, tinkoak baino gehiago, eta prostituzioaren aritzen ziren emakume hauek toki batetik bestera mugitzeko beharra erakutsi zutela, eta gauza bera gertatu zela prostituzioaren esparru bi horiekin ere. Zer esan gura dut? Ba, legeak, sarritan, ez betetzeko daudela, batez ere prostituzio klandestinoaren praktikak hartu zuen garrantzia kontuan hartzen badugu edo adingabeen egoera ikusten badugu testuinguru horretan. Solasaldi hau amaitzeko, azpimarratu gura nuke prostituzioa ez zela inola ere gai txikitzat hartu agintari kolonialen eguneroko agendan.

Xake konpainiaren 'Fadoak entzuten zituen gizona' lana aurkeztuko dute Arriola aretoan

Gaur, barikua, izango da emanaldia, 20:30ean; sarrerak 12 euroan erosi daitezke

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Anderrek (Kepa Errasti) eta Mariok (Iñigo Aranbarri) Ayamontera (Huelva, Espainia) egingo duten bidaia da *Fadoak entzuten zituen gizona* antzezlanaren abiapuntua. Ander auto-stop egilea da, eta Ayamonten egitekoa den fado lehiaketara joatea da bere asmoa; Mario kamioilaria da eta Burgozen (Espainia) batuko du Ander. Protagonista biek elkar ezagutzen dute lehenagotik, baina urteetan ez dute izan elkarren berri. Masku (Ane Gabarain) izeneko

Ane Gabarain, Kepa Errasti eta Iñigo Aranbarri dira antzezlaneko protagonistak

Maskulinitatea ulertzeko ikuspuntu desberdinak dira antzezlanaren ardatza

pertsonaiak misterioa gehituko dio euren bidaiaiko abenturari. Funtsean, maskulinitatea ulertzeko ikuspuntu desberdinak dira antzerkira ekarritako *road movie* honen ardatza.

Hirugarren lana

Mami Lebrun (2016) eta *Lur* (2018) lanak taularatu ondoren dakar Xake konpainiak *Fadoak entzuten zituen gizona*, bere hirugarren lana. Xake produkzioak orain dela bost urte jaio zen.



Kepa Errasti eta Iñigo Aranbarri.



Gorka Ganso.

Ganso bakarrik igoko da taula gainera, lehenengoz, 'Alpha' antzezlanean

Asteburuan estreinatuko du klown ikuskizuna, Durangoko San Agustin kulturgunean

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Ganso&cia konpainiak proposamen egokia dakar bizi dugun sasoirako. Asteburuan, *Alpha* klown ikuskizuna estreinatuko dute, Durangoko San Agustin kulturgunean. Beldurra da obraren ardatza, eta barrea proposatzen dute "birus horri aurre egiteko". Oraingoan, Gorka Ganso bera bakarrik igoko da taula gainera, Iñaki Santos musikariagaz batera. Lehenengoz, Gansok bideo proiektzioak ere erabiliko ditu antzezlan batean. Familia osoarentzako ikuskizuna da. Gansok *Alpharen*

'Alpha'-ren hiru emanaldi eskainiko dituzte: gaur estreinua, zapatuan eta domekan

Sarrerak San Agustinen, Arte eta Historia museoan eta Kutxabanken bitartez erosi daitezke

hiru emanaldi eskaniko ditu, lehenengoa gaur; zapatuan eta domekan ere egongo da ikusgai. Emanaldi guztiak 18:00etan izango dira. Sarrerak San Agustinen bertan, Arte eta Historia museoan edota Kutxabanken bitartez erosi daitezke.

Kultura, segurua

Osasun egoerak baldintzaturiko sasoiari, San Agustin kulturgunetik kultur ikuskizunetara joateko deia egin dute egunotan, eta kultura segurua dela gogoratu dute beste behin ere.

Egitura piramidala duten elkarteei kritika zorrotza 'Otsoa' antzezlanean

Larrua konpainiaren antzezlan koreografiko hau Zornotza Aretoan eskainiko dute, gaur, barikua, 20:15ean

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Lau dantzari eta aktore bat dira *Otsoa*ko protagonistak. Larrua konpainiako kideen berbetan, antzezlan "oihu" bat da. "Elkarrregaz egindako oihu bat da, asmatu-askatasun bati egin-dakoa. Helmuga bat da, helduek beharrezkoa eta komenigarria den leku bat", azaldu dute. Hausnarketa bat ere bada, baita kritika bat ere. Hain zuzen ere, egitura piramidala duten elkarteei ere kritika egiten zaie *Otsoan*. Begoña

Martin aktoreak lider papera du, eta dantzarien jarrera eta honen talde izaera gidatuko du, "Gran Hermano programako liderraren moduko papera hartuta". Jordi Vilasecak, Aritz Lopezek, Helena Wilhelmssonek eta Maddi Muñozek osatzen dute interpreteen taldea.

Larrua konpainiak aurretik *Ozko*, *Idi Begi* eta *Baserri* lanak kale-ratu ditu. Azken honek Max sari entzutetsuetarako izendapena jaso zuten.



'Otsoa'.

Gai librean

Akordatzeko?

Akordatzeko naiz Bilbokoa bakarrik zegoen garaian, Durangon ere Kafe Antzoki bat irekiko zutela entzun nuen hartaz, eta ireki zutenean izan zuen oihartzu-naz. Ongi gogoan dut kotxea hartu eta Walls Of Jericho, Sick Of It All eta Terror hardcore kontzertuak ikustera joaten ginenekoa, Envy japoniarren zuzeneko bortitza, Fu Manchu-ren kontzertu pisutsua, eta kanpoan izotza egiten zuen gau hartan aretoa lepo beteta zela ia atetik bertatik ikusi behar izan genuen Vetusta Morla hasiberriena ere. Ez dut ahaztuko Berri Txarrak ikustera joan eta Belako ezagutu nuenekoa, Willis Drummond-en disko aurkezpenera autobuskada bat joan ginenekoa, Anarrik eta Napoka Iriak elkarrekin abestu zuten momentu magikoa eta Lisabörekin lepoko minarekin bukatu nuen gau hura. Akordatzeko naiz



Ihntza Orbegozo Igartua
Plateruena

Akordatzeko naiz Bilbokoa bakarrik zegoen garaian, Durangon ere Kafe Antzoki bat ireki zutela entzun nuenaz

Hamasei urte ez baitira alferrik pasatzen. Eta zu, akordatzeko al zara Plateruena bizitako?

ere, herriko mintzalagun taldea Durangoko Azokara ekarri eta Urtz-en kontzertuaren azken abestietan sartu ginela, eta San Fausto jai batzuetan parrandan goizeko ordu txikietan aspaldiko lagun batek hartutako ipurdikoaz. Baina bereziki oroitzen ditut talde kuttunari toallak kamerinora eramanez nizean lehen aldia, telefonoz lehen aldiz kontzertu bat guztiz lotu nuen momentua, hitzaldi batean

jendea sartu ezinik gelditu zen hartakoa, ezin interesgarriagoa zen dokumentala ikustera lau katu etorri zirenekoa, ekitaldia aurkezteko mikrofono eta fokua nigan erdiratu eta begi-belarri guztiak gainean izan nituenekoa, eta Hitzek eta Ahotsez-en irakurri nuen lehenengo aldia. Baita adin txikikoen legearekin izandako buruhausteak eta ezin ulertuak, takilan izandako eztabaida eta lagunarteko elkarriketak, eta pandemiaren etorrerarekin batera sortutako kezka eta zalantzak.

Asko izan dira bolada honetan horiek guztiak antolatzeke egindako bilera, kafe, e-posta eta telefono deiak, eta noski, bide horretan ezagututako pertsonak. Asko izan dira ere, algarak eta negarrak, pozak eta tristurak, besarkadak eta haserreak, hamasei urte ez baitira alferrik pasatzen. Eta zu, akordatzeko al zara Plateruena bizitako?



Andoni Gutierrez
Lizundia
Espainiako txapelkun
urezko motorretan
Abadiño | 1987

aritzeak, fisikoki ondo prestatzea eskatzen du eta harrikada apur bat izatea ere bai, dena esan behar bada.

Erorikoak mingarriak dira?

Bai. Ez da asfalto bezain arrisku-tsua, beti ez duzu minik hartzen, baina abiadura handian jausiz ge-

“

Geroago eta gehiago gabilta; orain hamar urte, ni hasi nintzenean, Durangaldean ia ez zebilen inor”

—

ro... Nik kolpe handiak hartu ditut saihetsetan, klabikulan... Uraren presioak min handia egiten du. Lagun batek femurra apurtu zuen. **Euskal Herrian gutxi zabilzate uretako motoetan, ala dirudiena baino gehiago?**

Geroago eta gehiago gabilta. Orain hamar urte, ni hasi nintzenean, Durangaldean ez zebilen ia inor. Orain, hainbat dabilta. Aulesti eta Gernika inguruan ere ezagutzen ditut. Gu Basque Riders motonautika klubean batzen gara. Abadiñoko taldea da. Kirol hau probatzera animatu gura ditut gazteak.

Aurrera begira, zer asmo duzu?

Frantziako txapelketa egin gura nuke, pilotorik onenak han daude eta. Greziako munduko txapelketan parte hartzea da beste helburu bat. Karibeko lasterketetan aritzea ere gustatuko litzaidake. Probarik gogorrenak eta politenak dira.

“Uretako motoetan aritzeak fisikoki ondo prestatzea eskatzen du eta harrikada apur bat izatea ere bai”

Andoni Gutierrez pilotu abadiñarrak Espainiako txapelketa irabazi du uretako motoen rallyjet modalitatean

UREZKO MOTOAK • JOSEBA DERTEANO
Hamar urte joan dira Andoni Gutierrezek uretako motoa deskubritu zuenetik, eta harrezkero bidela-gun du bizitzan. Iaz GP3 mailako Europako txapelketa irabazi zuen Portugalen, 2018an Espainiako Errege Kopa, eta orain asteburu bi Espainiako txapelketa rallyjet modalitatean.

Zer da rallyjet modalitate hau?

Zirkuitu handi batean ordu erdiko txanda bi egiten ditugu. Bidean saltoak eta oztopoak daude eta nork arinago amaitu ibiltzen gara.

Itsasoa ez da etxeko leihotik ikusten duzun zerbait. Zelan zaletu zinen kirol honetara?

Aitak motoak konpontzen ditu eta txikitatik ezagutu ditut motoak, errobera bikoak ez badira, lau-koak; eta bestela, kotxeak. Behin, orain hamar bat urte, Debako pertsona bati quad bat uretako moto batengaitik aldatu nion, zerbait berria probatu guran. Aitzol Arakistain da pertsona hori, Espainiako txapelketa lau-bost bider irabazi duen debatarra. Beragaz entrenatzen hasi nintzen. Hurrengo pausoa lasterketa batean parte hartzea izan zen. Apurka engantxatu egin nintzen eta gaur arte ekin diot.

Zer ematen dizu kirol honek hainbeste engantxatzeko?

Motordun kirola da, baina beste denetatik oso desberdina. Abiadura betean noanean ematen dizkidan sentazioak ez dizkit beste ezerk ematen. Eta izan ditut auto eta moto potenteak, alderatu ahal izateko. Baina uretako sentazio hori... oso berezia da.

Uretako motoa menderatu beharrezko makina bat da?

400 zaldi ditu eta 130 kilometro orduko abiadura hartu dezake. Imajinatu zer den hori uretan. Gatxa da potentzia hori kontrolatzea.

Alde fisikoari begiratuta, gogorra ematen du.

Bada, bai. Batez ere itsaso mugitua dagoenean eta olatuak daudenean. Halakoetan oso nekagarria da eta fisikoki oso ondo prestatuta egotea eskatzen du, aurrean ibili gura baduzu. Jendeak imajinatu ere ez du egiten zer punturaino den gogorra. **Beraz, ez zara ur gezatako marinela.** Kantauri Itsasoan entrenatzen garenon artean ez dago horrelakorik. Gure kostaldean oso itsaso gogorra dugu, mugitua delako. Txapelketetan itsaso mugitua badago, gu hobeto ibiltzen gara, ohituta gaude eta. Urtegiatan entrenatu gaitzek, baina ez litzateke berdina izango.

“

Uretako motoak 400 zaldi ditu eta 130 kilometro orduko abiadura hartu dezake. Gatxa da kontrolatzea”

—

Beraz, gurago itsasoa zakar bare baino.

Askoz gurago. Itsaso bareagaz gorputzaldiak ez du hainbesteko garrantzirik, eta sarritan jesarrita joan zaitezke. Baina kondizio gogorretan, bi-hiru metroko olatuekin, eta hankapean 400 zaldiko makina daramazunean, egoera erabat aldatzen da. Uretako motoetan



Andoni Gutierrez uretako moto gainean, txapelketako proba batean.



DRTko kideek astelehenean aurkeztu zuten aurtengo kanpaina, Rugby Tabernan eskainitako prentsaurrekoan.

DRTk kanpainagaz bat egiteko alternatiba sortu du: Movember-en maskarak

Kanpainaren bereizgarria den bibotea marraztuta duten maskarak salgai ipini dituzte

ELKARTASUNA • JOSEBA DERTEANO

Movember mundu osoan egiten den ekimena da azaroa heltzen denean. Prostata eta barrabiletako minbiziaren inguruko kontzientziazioan sakontzea du helburu, eta hile horretan bibotea uztea da gaia gizarteratu eta bistaratzeko modua. Durango Rugby Taldeak urtero sustatzen du kanpaina eta aurten ez da salbuespena izango, osasun krisiaren ondorioz ekimena moldatu egin behar izan duten arren. Aurten bibotea uzteak ez du gaia gizarteratzeko balio, mas-

karek estali egiten dutelako. Baina imajinazioa erabilia, alternatiba bat ipini dute martxan. Movember-en logoa bibote bat denez, maskarak atera dituzte irudi horregaz, 'Durango Movember' mezuagaz. Maskarek egungo arautegia betetzen dute eta honako establezimenduetan eskuratu daitezke: Rugby Tabernan, Saltsan-en, Mesoi Barrian, Izarbidan eta Txanton.

Dirua batzeko

Maskarek funtzio bikoitza dute: gaia bistaratzeko eta dirua lortzea.

Normalean, DRTk itsulapikoak ipintzen ditu hainbat tabernatan herritarrek euren ekarpenak egin ditzaten. Horrez gainera, kanpainaren amaierako jai bat antolatzen duten Rugby Tabernan. Ekimen batean zein bestean batutako dirua Movember mugimenduari ematen diote, baina aurten, osasun krisiak eraginda, dirua batzeko bide biak bertan behera utzi dituzte. Horrela, maskaren salmentaren bitartez batutakoa izango da aurten DRTk mugimenduari egingo dion ekarpena. Horregaitik, herritarrei maskarak

erosteko eta kalean erabiltzeko deia egin diete. 10 eurotan salduko dituzte.

Urtero legez, donazioak Internet bidez egiteko aukera ere eskainiko dute. Movember mugimenduaren webgunean Durango Rugby Taldeak sortuta duen taldera sartu behar da horretarako. Dirua batzeko bide guztiak kontuan hartuta, ia 2.304 euro batu zituzten.

2003an sortu zen mugimendua

2003an Australian sortu zenetik, mundu osora hedatu den mugimendua da Movember, eta izen bereko fundazioak gidatzen du. Sortu zenetik hona, milioi bat lagunek baino gehiagok bat egin du mugimendugaz, eta 719 milioi euro inguru batu dituzte osasun arloko 1.250 programatarako bideratzeko.



JULENURIBE.COM

Arroitauregiren oroimenezko txapelketako lehiak atzeratu egin dituzte

TRINKETA • J.D.

Koronabirus kasuen bigarren olatuak eraginda, Kepa Arroitauregiren oroimenezko txapelketako partiduak atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Finalak gaur jokatzekoak ziren, Tornosolo trinketean. Joan zen barikuko finalerdiak ere ez zituzten lehiatu.

Beraz, egoera hobetzen denean finalerdietatik ekingo diote berriro txapelketari emakumeen paleta goman, gizonen paleta goman eta eskuz binaka. Esku pilotan, Peio Larralde eta Asier Aspuru abadiñarrak osatutako bikotea finalerako sailkatuta dago. Hauen bikote aurkariak Arabiourrutia-Ducassou eta Ziarrusta-Guichantut bikoteen arteko finalerditik irtengo du.

Jokaldia

Baloi bat taldekide bakoitzak

Egunotan, COVID-19aren gaixotasunak gora egin du. Gora, gora. Zoritxarrez, hau guztia gure bizimoduaren parte garrantzitsu bihurtu da, eta baita saskibaloia ere, eta, oro har, kirolarena ere. Saskibaloian, NBA, ACB, LEB... beste mundu bat dira eta aurrera doaz. Kirol profesionala da horiena eta gorpilak biraka jarraitzen du. Baina gatozen geurera: maite dugun kirola praktikatzeko aukera izatea, eta arlo hori lantzea eta mantentzea da guk nahi eta behar duguna.

Kirola egitea osasuntsua da eta, era berean, gure kirolariek bere garapena lantzeko eta bideratzeko behar duten zerbait da. Gainera, aisialdian eta eskola orduetatik kanpora bere taldekideekin eta lagunekin aritzeko modu segurua eta landua da.



Unai Zamalloa
Zubiaurre
Saskibaloia

"Lehiaketarik ez dago. Ados nago. Baina kirola modu zaindu eta antolatuan egiteko aukera ezinbesteko ikusten dut"

"Kirola egitea osasuntsua da eta gure kirolariek bere garapena lantzeko behar duten zerbait da"

Lehiaketarik ez dago. Ados nago. Guztiz ados, gainera. Egoera latz honetan ulergarria dela deritzot. Baina era berean, kirola, modu zaindu eta antolatu baten egiteko aukera izatea ere ezinbesteko ikusten dut.


Taldean aritzea ez da arlo tekniko-taktikotik bakarrik bideratu nahi. Tal-

dean aritzea ez da denok bata bestearen gainean egotea, gure lagunekin gure kirolaz gozatzea baino. Gainera, guran daukagun honi guztiari aurre egiteko irtenbide bat da, barruan pilotutakoa askatzeko modu bat. Beti ere, osasun neurri guztiak hartuz eta betez, eta erantzukizunez jokatuz. Bakoitza bere baloiarekin, pilotarekin... eta bere taldekideekin, bere lagunekin.

Gure umeei eta nerabeek probatu dute bere ohiko entrenamendu saioetara bueltatzea. Egunotako berri honek asko atzeratu du guztia eta denok gaude arduratuta arlo horretan. Baina osasun neurriak zaindu eta errespetatuz, protokoloak behar den moduan betez, beraiek maite duten kirola egiteko aukera dagoela uste dut.

Ea horrela den. Hasiko gara. Gora bihotzak! Zaindu!

DURANGALDE



Anboto Zabalaunditik

Zeinen itxura desberdina duen Anboto mendiak begiratzeko den ikuspegiaren arabera. Kasu honetan, Zabalaunditik ateratako argazkian, Anbotoren hego-ekialdeko aldea ikusten da, Sorginen Lasterketan igotzen dena, hain zuzen ere.

KO TXOKOAK!



**Sarria auzoko
ur-jausia**

Berrizko Sarria auzoan txoko eder eta liluragarri hau dago. Ez du jende askok ezagutzen. Ur-jausiak putzua sortzen du, eta oso aproposa da freskatzeko eta bainua hartzeko.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

DURANGO
3 logela
J.M. ALTUNA: Pisua erdigunean, Jesuiten ikastetxeren ondoan. 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Ganbara.
215.000€

IURRETA
3 logela
MASPE KALEA: 3 logela, komuna, sukalde eta despentsa. Terraza. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan.
160.000€

DURANGO
2 logela
DURANGO: 2 Logela (lehen 3), komuna, sukalde handia eta egongela. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. BERRIZTATUA.
129.500€

DURANGO
3 logela
ARAMOTZ AUZUNEA: 3 logela. Komun berria, sukalde eta egongela. Berriztatua. Eguzkitsua. Igogailua ipintzeko aukera.
125.000 €/NEG

DURANGO
3 logela
2 komun
ARTEKALE: 3 logela, 2 komun, sukalde handia eta egongela handia. Igogailua. Ganbara. Terraza komunitarioa.
198.000 €

MATIENA
3 logela
Matiena: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. Alokairuan erosteko aukeragaz.
600€ / 170.000 €

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m2. 4 logela, 2 komun, sukalde eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.

TRONPERRI: Pisu ederra. 4 logela. Garajea. Ganbara. Txoko eta terraza komunitarioak. Kokapen ederra.

MURUETA TORRE: Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak. 3 logela, printzipala balkoiagaz, 2 komun, egongela eta sukalde balkoiagaz. Garajea eta ganbara.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

TORRESOLO: 3 logelako etxebizitza ederra. Guztiz berriztatua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukalde balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukalde, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MENDEXA: Izkinako adosatu paregabea. Kokapen ederra eta oso ondo mantendua. Ia berria.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrria berriztatuko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bi bizitzako baserrria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO
40 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

DURANGO
2 logela
BARRENKALEA: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Igogailua. Hobekuntza txikiak behar ditu. C.E.E:G
110.000 €.

DURANGO
3 logela
ARAMOTZ: 3 logela, egongela, sukalde eta komun berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan. C.E.E:E
125.000 €, Garajea aukeran; 14.000 €.

DURANGO
2 logela
SASIKOA: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komun. Balkoia. Argitsua. 3m2-ko ganbara eta 28 m2-ko garaje itxi bikoitza. Igogailua. C.E.E:E
239.000 €

DURANGO
4 logela
TRONPERRI: egongela, sukalde jantzia, despentsa eta 2 komun. Argitsua. Garajea eta ganbara. Terraza handia eta txoko komunitarioa. Igogailua. C.E.E:E
258.000 €.

MATIENA
2 logela
TXINURRISOLO: Egongela, sukalde eta komuna. Erdia kanpora begira. Hobekuntza txikiak behar ditu. C.E.E: Bidean.
99.000 €

MUNTSATATZ
3 logela
ARLOZABAL: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Eguzkitsua. Igogailua. C.E.E: Bidean.
210.000€

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//DURANGO
ALLUITZ KALEA: 4 logela, sukalde, garbitokia eta 2 komun. Ganbara. Igogailua eta garaje itxia. **320.000 €/E.E.E=E**
AMBROSIO MEABE: 2 logela, sukalde, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. LEHEN **205.000 € / ORAIN 198.000 € / E.E.Z=E**
ERRETENTXU: 3 logela, sukalde, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukalde, egongela, bulegoa eta komuna. Igogailua. **220.000 € / E.E.Z=E**
MURUETATORRE: 2 logela, sukalde balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**
SANTIKURUTZ KALEA: Bi bizitzako etxea eraikitzeko 600 m2-ko lurzorua. **640.000 €**
TXATXIENA: 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. LEHEN **390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukalde eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. LEHEN **342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**
URKIOLA AUZOA: 3 logela, sukalde-egongela-jangela eta 5 komun. Ganbara. Garajea. Lursailagaz. **285.000 € / ORAIN 248.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukalde, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 € / E.E.Z=G**
BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukalde, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

ERROTATXO KALEA: 3 logela, sukalde balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z =G**

Errotatxo kalea: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN **95.000 € / ORAIN 85.000 € / E.E.Z =E**

Learreta Markina: 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

Amilburu Musikarien Plaza: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN **276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukalde, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN **200.000 € / ORAIN 168.000 € / E.E.Z=F**

TRAÑABARREN: 3 logela, sukalde, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN **220.000 € / ORAIN 210.000 € / E.E.Z =E**

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukalde, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 € / E.E.Z=F**

ARTEKALE: 2 logela, sukalde, jangela, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN **75.000 € / ORAIN 39.500 € / E.E.Z=F**

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA: 3 logela, sukalde, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN **170.000 € / ORAIN 160.000 € E.E.Z=Bidean**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Aroa (824. alea)**! Hamabostean
behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu.
Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean
jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente
Kapanaga, 9 an.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 15° / 11° ☁️🌞	ASTELEHENA 🌡️ 13° / 9° ☁️🌞	EGUAZTENA 🌡️ 13° / 9° ☁️
DOMEKA 🌡️ 12° / 10° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 12° / 10° ☁️	EGUENA 🌡️ 12° / 9° ☁️



“Eskolako mantenuaz haratago doan lana izan da eta hala bizi izan dut”

Egindako lanagaitik Traña-Matienako eskola komunitatearen esker ona jaso du Jose Luis Gangoitia 'Txanbo'-k



**J. LUIS GANGOITIA
AZKARATE 'TXANBO'**
Traña-Matiena eskolako
mantentze-arduraduna
Abadiño | 1955

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Jose Luis Gangoitia 'Txanbo'k 65 urte egin zituen egunean, urriaren 25ean, hartu zuen erretiroa. Omenaldia ere egin zioten Traña-Matiena eskolako irakasle eta ikasleek, eta Guraso Elkartek ere esker ona agertu dio. 22 urtean izan da ikastetxeko mantentze-arduraduna. Eguraldiak lagundu dion guztietan bizikletan joan da lanera.

Jose Luis ala 'Txanbo'?

'Txanbo' izenagaz ezagutzen naute Abadiñon. Amaren familiatik —Txanbolindarrak— datorkit gaitzizena. Aitita Abadiñoko txistularia izan zen, osaba Julian ere bai. Nik ez diot bide horri jarraitu, putz egiten ere ez dakit eta!

Zelan hartu duzu omenaldia? Zein sentazio dituzu erretiroa hartuta?

Sorpresa polita izan da. Apur bat hunkitu ere egin naiz. Itxaroten egon naiz erretiroa noiz hartu, egun horretan zer sentiduko nuen... Pozik nago, beti gura izan dut 65 urtegaz eta osasuntsu jubilatuta. Baina pena apur bat ematen dit eskola eta jendeagaz dudana hartu-emanatzek, jakin arren ez ditudala galduko, hemendik ibiliko naiz eta. Zelako lana da eskola bateko mantentze-lana eramatea? Matxurak konpondu behar dira, mantentze-lanak bete, baina denborarik gehiena hartu-emanetan eta zaintzan joaten da. Edozein unetan suertatu daiteke umeei

eta gurasoei jaramon egin behar izatea. Zuzendaritzak eskatuta, beste zenbait lan egitea ere gerta daiteke: pankarta bat ipintzea eskolako jaian, txitxiburduntzirako txingarra egitea... ikastetxe batean milaka eginbehar daude. Eta asko baloratzen dut mantentze-lanetatik

“

Pena apur bat ematen dit eskola eta jendeagaz dudana hartu-emanatzek, jakin arren ez dudala galduko”

”

kanpora dagoen beste lan hori, baina beste batzuek ez. Udalak ez du nire ordezkorik ipiniko. Mantenuaz haratago doan lana da eta hala bizi

“Behobia-Donostia hamabi bat bider egin dut, eta Donostiako maratoia ere bai 1992an”

izan dut.

IHainbat belaunalditako ikasleen artean oso maitatua izan zara. Irakasleen artean ere bai. Ez da gutxi!

Bai. Ikastetxetik irten duten ikasle askok agurtu egiten naute oraindino, eta batzuk ezagutu ere ez ditut egiten. Hasieratik jakin dut nora nentorren eta zelako lana zen nirea. Denok gara ama eta aita batenak. Bada, ezker eskua eta eskuma izan behar dira. Lehenetsuna zehaztu eta denera heldu naiz. Aurrez aurre joatea, hori izan da nik egin dudana.

Zu zeu ikasle ona izan zara?

Apur bat burugogorra izan naiz eta lan asko egin behar izan nuen.

Orain denbora gehiago izango duzu zeure zaletasunetarako.

Beti izan naiz oso kirolaria. Futbolaria, pilotaria, eta azken urteetan korrikalaria. Behobia-Donostia hamabi bat bider egin dut, eta Donostiako maratoia ere bai 1992an. Maratoi erdiren batzuk ere egin ditut. Korrika egiteak sortzen duen adikzioaz osatzen nabil; ez dakit gura dudana! (barrez). Oinez eta korrika, txandaka ibiltzen naiz, eta jarraituko dut osasuna utzi bitartean.

Abadiño futbol taldeko sortzaileetarikoa bat izan zinen.

Hala da. Arineketan ona nintzen, baina indarra falta nuen. Proba bat ere egin nuen 3. mailan jokatzeko zuten Getxo taldeagaz. Pilotan ere indarra falta nuen.

Lauhortza

Alina Ahtamon
Medikua



Ama izateko bidea

"Bizidun izatea eta bizitzari bizia ematea esan nahi du, berez, haurdun izateak", hau da lagun batek esan didana: bizitzari bizia ematen ari zarela sentitzen dut? Orduan, ama izan nahi ez dutenek, edo "bizitza" horri amaiera ematea erabakitzen dutenek ezin diote bizitzari bizia eman? Egia esan, ez dut erantzunik eza-

"Bizidun izatea eta bizitzari bizia ematea esan nahi du, berez, haurdun izateak"

gutzen galdera horretarako, baina dakidana da lehenengo aldiz neure barruan bihotz taupada hori ikusi eta entzuterakoan, behintzat niretzat mundua gelditu egin zela eta ez zegoela sentimendu hori estali zezakeen ezer.

Gaur arratsaldean, doppler deitzen den teknika ekografikoa daukat eta urduri nago ikusi egin behar dudalako, eta urduri zerbait gaizki topatuko duten beldurrez. Gainera, mediku izatea askoz okerragoa dela ere uste dut, gerta daitezkeen patologia guztiak ezagutzen ditudalako.

Edonola ere, barruan dudana

Barruan udan txiki horrek motibatzen nau pandemia honi aurre egiten jarraitzeko

txiki horrek motibatzen nau pandemia honi aurre egiten jarraitzeko eta egunez egun bizi dugun mundua hobetzeko.

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
www.alkimax.net



**Deskargarako
Dumpera
Deskargak
altueran**



**Kontainerretan
deskarga
egiteko Dumper
beldarra**

**Dumper
beldarra 500 kg**

